



txintx  rri

2017-12-29 OSTIRALA / 1405. ZENBAKIA  
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

# 2017 urtea, protagonisten ahotan



**Ges**  
ASEGURUAK



*Zorionak eta urte berri on!*

*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



**factory**  
*logistika* Soinua & Argiak

2018 zoriontsua opa dizuegu!

www.factorysoinua.com  
943 50 44 80  
646 277 289  
605 758 572  
Brunet poligonoa.  
Oria etorbidea 8-10. 25 pab.  
20160 LASARTE-ORIA

Kontzertuak  
Antzerkiak  
Bertso saiok  
Guneetako soinu eta argi instalazioak  
Ekitaldien soinu-zatze eta argiztapena  
Kultur ekitaldien produkzio eta azpiegitura logistikoa



f

# txintxarri

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*

***Txintxarriko lan taldeak  
2018 zoriontsua opa dizuegu***

*Hurrengo Txintxarri paperean  
**urtarrilaren 12an** argitaratuko dugu*

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)



## 2017 urtea

<b>Urtarrila</b>	<b>4-5</b>
<b>Otsaila</b>	<b>6-8</b>
<b>Martxoa</b>	<b>10-11</b>
<b>Apirila</b>	<b>12-13</b>
<b>Maiatza</b>	<b>14-15</b>
<b>Ekaina</b>	<b>16-18</b>
<b>Uztaila</b>	<b>19-20</b>
<b>Abuztua</b>	<b>21</b>
<b>Iraila</b>	<b>22-23</b>
<b>Urria</b>	<b>24-25</b>
<b>Azaroa</b>	<b>26-28</b>
<b>Abendua</b>	<b>30-31</b>

**Hurrengo zenbakia**

# txintxarri

**Urtarrilaren 12an**  
Informazio gehiago txintxarri.eus orrialdean edo sare sozialetan

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Erredakzioa**

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**

Arantxi Zulaika.

**Laguntzaileak**

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,  
Jexux Artebe, Maider Galardi,  
Mikel Yarza, Nerea Segura eta  
Aizpea Amas.

**Informatikoa**

Asier Aztiria.

**Administrataria**

Nerea Garziarena.

**PUBLIZITATEA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94

**ISSN:** 1134-0053

**Tirada:** 7.800 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



Tokio 2020 aurretik hainbat helburu ditu bidean Chourrautek, Seu d'Urgelleko Munduko Txapelketa, esaterako . MAIALEN CHOURRAUT

# "Piraguista gisa hobetzen jarraitzea da nire helburua"

## MAIALEN CHOURRAUT PIRAGUISTA

Urte berriarekin batera erronka berriak iritsi ziren Maialen Chourrautentzat 2017an. Rio 2016ko urreak hauspotuta, ziklo olinpiko berri baten erdian dago herritarra

### Txintxarri

Modu ezin hobean itxi zuen aurreko ziklo olinpikoa Maialen Chourraut piraguistak (Lasarte-Oria, 1983). Urrezko domina kolokoratu zuen Rio de Janeiroan; bete zuen ametsa. Piragua gainean ziklo olinpiko berri bati ekin dio Maialenek, eta guraso bezala ere beste etapa bat ireki zaio, eskolan hasi baita Ane alaba. "Fase berriak etortzen doazen heinean ikasten joaten gara alor horretan ere".

Ospakizun egunak familiarekin igaro zituen. Horrez gainera, entrenatu eta hainbat aitortza jaso zituen herrian bertan: Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak bere izena darama orain.

### Olinpikoar Jokoak

"Joko Olinpikoetan urrezko domina lortzea sentsazio ikaragarria izan zen, konfiantza asko eman digu bide honetan jarraitzeko. Hori bai, gauza onak zein txarrak izan, ez zait

gustatzen etengabe horiei bueltak ematen egotea; bizitzak aurrera jarraitzen du eta erronka berriekin ekin behar diezu. Bertutetzat daukat hori."

### Tokio 2020

"Ziklo olinpiko polita da datorrena. Bi urte barru, 2019an, Seu d'Urgellen egingo da Munduko Txapelketa [2018koa Rion izango da]; urtean zehar denbora asko pasatzen dut bertan bizitzen eta entrenatzen. Gainera, idealizatuta

daukat txapelketa hori, 2009an Seu bertan jokatuakoa eskuratu nuen zilarrezko domina hori izan zelako mugarrira, orduz geroztik goi mailan mantentzeko. Eta, jakina, 2019ra iritsita, urte preolimpikoa dela kontuan hartuta, Tokio 2020 ere hor baitago. 37 urterekin iritsiko nintzateke, baina gaur egun motibatzen nau erronka horrek ere. Halere, nahiago dut pixkanaka joan. Ez nago obsesionatuta titulu eta garaipenekin, piraguista bezala hobetzen eta prestatzen jarraitzearekin baizik.

### Entrenamenduak

"Batez ere palada bertikalagoak ematea dut helburu, pala aldatu baitut; zentimetro eta erdi luzeagoa da orain. Momentuz, adaptazioa oso ona izaten ari da, eta pozik gaude horrekin.

Egiten ditugun saio guztiak bideoz grabatzen ditugu. Ondoren, etxean, Xabi [Maialenen entrenatzailea eta senarra da Xabi Etxaniz] eta biok aztertzen dugu, ikusteko nola entrenatu dudana eta etorkizunera begira zertan hobetu dezakedan".

### Familia eta eliteko kirola

"Ane goizeko 09:00etan sartzen da eskolan, eta 12:30ean irten. Horrek aukera ematen dit goizetan denbora gehiagorik entrenatzeko, eta ahal dudana gehiena aprobetxatzen saiatzen naiz. Arratsaldean ere egiten ditugu saioak, eta Ane oheratu ostean, *bilera* moduko batzuk egiten ditut Xabirekin batera, entrenamenduetako bideoak ikusteko, egun horretan landutakoa aztertu eta zertan hobetu dezakedan jakiteko.

Jaio zenetik orain arteko etapa mugituegia izan da Anerentzat. Bidaia eta konpromiso asko izan ditugu, eta beti etorri da gurekin, guk uste izan dugulako gurasoekin batera egotea zela harentzat aproposena.

Eliteko kirolari eta guraso izatea uztartzearen aldeko apustua egin genuen Xabik eta biok (2013an jaio zen Ane alaba). Gauza berri ugari egin behar izan genien aurre, eta etorri ahala joan ginen ikasten".

### Londres 2012

"Londresko Olinpiar Jokoetan lortutako brontzezko domina oso garrantzitsua izan zen niretzat, eta piraguismoarentzat

## "EUSKAL HERRIAN PIRAGUISMOAN ARITZEKO INSTALAZIOAK FALTA DIRA"

ere bai. Ur bizietan sekula ez zen dominarik irabazi ordura arte, baina, halere, ez ninduen guztiz ase. Urrea irabaztetik oso-oso gertu geratu nintzen, 97 ehunekora baino ez. Oso-oso bizkor nindoan orduan, prest ikusten nuen nire burua lehen postuetan egoteko; munduko rankingean bigarren postuan iritsi nintzen. Brontzea kolokoratu arren, penatuta geratu nintzen, urrezko domina irabaztetik oso gertu geratu nintzelako".

### Piraguismoa Euskal Herrian

"Euskal Herrian piraguismoan aritzeko instalazioak falta dira, hori begibistakoa da; kanal bat behar dugu hemen. Kirol horren praktika hemen sustatzeko, gakoa da entrenatzeko instalazio egokiak edukitzea. Horrez gain, oso lizentzia gutxiko kirola da, fitxa gutxi daude piraguismoan. Gauza oso ona daukagu, ordea: piraguista oso prestatuak ditugu, oso onak eta talentu handikoak. Adin tarte guztietan gainera, ez daukagu hutsunerik alor horretan. Entrenatzaile oso onak ditugu baita ere, baina lehen esan dizudana bezala, oso fitxa eta instalazio gutxi. Hori landu behar da.

Ni neu ere horrela ibili izan naiz urte luzez, furgonetan sartu eta kilometroak egiten, bata bestearen atzetik, baldintza egokietan entrenatu ahal izateko. Berez entrenatzen pasa beharreko ordu horiek ibilgailuan sartuta pasatzen genituen. Euskal Herrian instalazio apropos batzuk egitea oso ona izango litzateke; beharrezkoa da".

### Jendearen erantzuna

"Ez nuen espero jendea horrenbeste hunkitzea nire urrezko dominarekin. Bizi egin dute, eta horrek hunkitzen nau gehien. Kaletik noanean eta norbaitekin hizketan geratzen, gogoratzen du non zegoen nik Rion urrea irabazi nuen egun eta momentu zehatzean, kontatu egiten dit, eta hori oso polita da".

## "Ez dago erraustegiaren proiektua ulertzerik"

Erraustegiaren proiektuari aurre egiteko helburuz, hainbat herri ekimen sortu ziren Lasarte-Orian

### Txintxarri

Zubietako erraustegiak polemika handia sortu du Lasarte-Orian. Herritik 2.000 metrora egongo da Gipuzkoako Aldundiak deituriko *Ingurumen Gunea*, eta plataforma ugari sortu dira horren aurka egiteko, osasunean eta ekonomian ekarriko dituen ondorio kaltegarriak ikertzeko.

Landaberri Gurasoen Elkarteak kezkatuta dago, ikastetxeetatik oso gertu ezarriko baita erraustegia. Hain zuzen ere, Landaberri eraikineko 400 ikasleak (LH 3-4-5 eta 6) 1,4 kilometrokora egongo dira. Garaikoetxea eraikina (HH eta LH 1-2) 2,3 kilometrotara dago,

eta Landaberri DBH, berriz, 2,2 kilometrorara. Arrazoi horrexegatik, Landaberri Gurasoen elkarteak lanketa bat egiten hasi zen, komunitateari ahalik eta informazio zabalena helarazteko. Susan Martinez, Bea Egizabal eta Miren Zaldua elkarteak kideek horrela adierazi zioten TXINTXARRI-ri: "Irtenbidea da adostasunaren bidea. Ez dugu uste legitimoa denik hainbeste etxetan eta hainbeste familiatan eragingo duen proiektu bat kontsensurik gabe eta gehiengo osorik gabe aurrera eramatea. Osasunean eragin ditzakeen kalteak agerian geratu dira, eta ezin daiteke

ulertu horrelako proiektuek aurrera jarraitzea".

### Aire Garbia

Lasarte-Oriako Aire Garbia plataforma 2015eko udazkenean sortu zen, herriko elkarte, norbanako eta eragile askoren eskutik. Beste hainbat herri plataformaren antzera, lanketa egitea du helburu, Zubietan herritik distantzia oso laburrera eraiki nahi duten errauste plantaren aurka egiteko. "Ezarri nahi den eredu ekonomikoa atzerapauso izugarria da; europar joeretatik aldentzen da, ez baitu zaborra murriztea edo birziklatzea sustatzen; gehien birziklatzen dutenei kaltetzen die gehien", azaldu zioten aldizkari honi Ricardo Ortega eta Martin Anso plataformako kideek.

Horrez gain, osasunaren ingurukoa da erraustegiak pizten duen beldur handia. Medikua eta



Ricardo Ortega, Aire Garbia taldeko kidea, maitzean eginiko protestan. TXINTXARRI

Osasuna eta Errausteta Ikerketa Taldeko ikerlaria da Iñigo Suberbiola: "Errauste planta hamar kilometroko eremuan duenak minbizia izateko arriskua %3,5 areagotu dezake. Baita beste gaixotasunak sufritzeko ere, hala nola, Ez-Hodking Linfoma, urdaileko minbizia, kolon-ondestekoa, gibelegoa, biriketakoa,

eta laringekoa. Gainera, minbiziaren ondoriozko heriotza tasaren areagotzea ekarriko luke, eta baita ondoko gaixotasunena ere: pleura tumorea, urdailekoa, gibelegoa, giltzurrunekoa, obulutegikoa, biriketakoa, leuzemia... Sortzetiko malformazioak ere areagotuko lirake".

## "Beharbada ez gara horren erradikalak"

BEA EGIZABAL ETA ANE LABAKA 'ERRADIKALAK GARA' SAIOKO EGILEAK

'Erradikalak gara' du izena Bea Egizabal eta Ane Labaka herritarren emanaldiak. Lankuren sormen beka irabazita, eguneroko gaiak landu dituzte. Hala nola, aniztasuna, euskalgintza eta indarkeria. Betiere ikuspegi feminista batetik. Bertsoak eta bakarriketak uztartu dituzte.

**'Erradikalak gara'. Zer adierazi nahi duzue horrekin?**

Ane Labaka: Batez ere, kanpotik, feminista kontsideratzen garenoi esan izan digute erradikalak garela zenbait kontutan. Borroka egin behar dugula,

baina neurri baten barruan. Gaur egun bizi dugun egoera adierazi dugu emanaldian zehar, eta bukaeran konturatu gara agian ez garela izan behar gure bezain erradikalak.

**Bertsoak eta bakarriketak uztartu dituzue. Udaberriko Bertso Saioaren euskarri berbera al du?**

AL: Bertso jarriak eta bakarriketak uztartu ditugu. Momentu batzuetan, esaterako, nik eraiki dezaket zerbait eta Beak deseraiki, edo alderantziz. Bion artean estruktura eta egitura eman dizkiogu.



**"ENTRETENITZEA GARRANTZITSUA DA. BAINA BADAIGU GURE JARDUNA ARMA BAT DELA. DISKURTSO BAT DAGO"**

Bea Egizabal: Azpimarratuko nuke eszenikotasuna zaindu dugula. Ez dugu aldiro bakarriketa egiten eta ondoren bertsoa. Zurrunezia litzateke modu horretan. Gainera, Anek sorpresa pila ditu gordeta.

AL: Saiatu gara zurruntasun horrekin apurtzen. Azkenean, konturatu ginen biok egon nahi genuela eroso, gurea eginez. Nik uste dut lortu dugula.

**Eragiteko ere balio du zuen obrak?**

AL: Feminismoa zeharlerroa litzateke. Ariketa alderantziz egin dugu. Esan duzunaren harira, entretenitzea garrantzitsua da, bai. Baina nik uste dut bai Beak baita nik ere badakigula gure jarduna arma bat dela. Ipuin kontalaritzak, bertsoek, bakarriketek... badute diskurtso bat.

2018 zoriontsua izan dezazuela!!



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51



2018 zoriontsua opa dizuegu!

**NOAOO**  
BIDAIAK

**IRTEERA MAIATZEAN**  
Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

# "Derrigortasun eta folkloretik kanpo utzi behar dugu euskara"

**ESTITXU ALKORTA** EUSKO JAURLARITZAKO EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARIA Alkortarentzat funtsezkoa da esparru digitalean euskarazko produktuak sortzea, eta horiek erakargarriak izatea, batez ere 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat

## Txintxarri

Estitxu Alkorta herriko EAJko zinegotzia Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaria ere bada. 2007tik 2011ra Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria izan zen, eta orduko "esperientzia onak" bultzatuta hartu zuen erronka berria.

## Izendapena

"Ilusioarekin hartu nuen izendapena. Ez nuen eskaintza une hartan iristea espero, Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak, Miren Dobaranek, esan zidanean pozik hartu nuen eskaintza, eta asko pentsatu ondoren, baiezkoa eman nion".

## Lan ildo nagusiak

"Lau lan esparru nagusi finkatu genituen: hasteko, euskal

hiztunen kopurua handitzea; bestetik, euskararen erabilera esparru funtzional informal horietan areagotzea; horrez gain, euskararen erabilera bermatu behar dugu, bai administrazio publikoan, baita eremu pribatuan ere; eta, azkenik, hiru lurraldetako harreman instituzionalak sendotzea".

## Euskara sustatzeko pausuak

"Guretzat berebiziko garrantzia du nerabeetan eragitea. Gaur egun 12 eta 16 urteko gazteengana iristeko produktu eraginkor bat behar da".

## Euskalgintzako eragileak

"Eskutik joan behar dugu eragile guztiok. Ikusten dugu hizkuntza politika eraginkor bat egiteko, herritarren eta elkarten

atxikimendua beharrezkoa dela".

## Lurraldeen artean

"Irizpide bateratuak landu nahi ditugu, betiere lurralde bakoitzaren egoera sozio linguistikoa errespetatuz. Nafarroa eta Iparraldearekin elkarlana sustatzeko asmoa dugu".

## IKT

"Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko egitasmoak diruz lagunduko ditugu".

## Euskarazko hedabideak

"Esparru honetan esan nahiko nuke lehen unetik nagoela sektorearekin harremanetan. Gogoeta prozesu horretan bete



Estitxu Alkorta, EAJko zinegotzia eta Eusko Jaurlaritzako arduraduna. TXINTXARRI

betean murgilduta gaude, eta euskal hedabideek euskararen normalizazioan egindako lana aitortzeaz gain, asmoa da lankidetzara hori denboran egonkortzea".

## Hedabideei laguntza

"Hiru urtetako laguntza ematea adostutako neurri bat izan zen, baina egia da balorazio irizpidetan desadostasunak egon direla, irismenari eman zaion pisuagatik, adibidez. Diru laguntza lerro hau azken bost urteetan ez da jaitsi. Diru poltsa pixkat handiagoa ere bazen azken deialdi honetan. Banaketa izan da desberdina, hori bai".

## Euskararen legea

"Erakunde bezala ezin dugu ahaztu Euskararen Legeak dioena, hori ere badelako gure oinarria; hau

da, euskal herritarrok informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea dugu. Beraz, erakundeak behartuta gaude eskubide subjektibo hori bermatzea".

## Tokiko hedabideak

"Nire ikuspegitik etorkizuna baduzue, eta gure asmoa ez da tokiko hedabideak eta nazionalak bereiztea. Hala ere, uste dut udalekin harreman estuagoa duzuela. Babestuago sentitu zaitezke udala edota Foru Aldundiagatik".

## Erdal komunikabideei dirua

"Hedabide horien kasuan, orokorrean gaitasun ekonomiko handia dute, autofinantzaketa maila altua eta beraz, euskaraz ere egin dezaketela uste dugu. Diru laguntza pizgarri bat da euskaraz zerbait egin dezaten."



## UDABERRI elkarteak

2018 zoriontsua opa dizuegu!



Andatza plaza z/g, behea - Tel. 943 37 19 83 - LASARTE-ORIA



## "Futbolean pentsatzen oheratzen eta esnatzen naiz egunero"

MIKEL MARTIJA SD EIBAR KLUBEKO IDAZKARI TEKNIKOA

Futbola da Mikel Martijaren pasioa, eta, horregatik, nahiz eta Eibar taldeko idazkari tekniko gisa ordu asko sartu, erabat asebetetzen du ogibideak.

"Gustura egiten dut, baloratua sentitzen naizelako eta egiten dudana gauza bakoitzak helburu zehatz bat duelako".

**Eibarrek fitxatzeko lau ezaugarri bete behar ditu futbolari batek ezinbestean?**

Lau ezaugarriren arabera baloratzen ditugu jokalaria. Horietako bat da taktikoki nola ulertzen duten jokoa, zein

erabaki hartzen dituzten zelaian; kualifikazio teknikoak ere neurtzen dugu; zelai barruan daukaten jarrera; eta pertsona gisa nolakoak diren.

**Pluralean hitz egin duzu orain arte behin eta berriro. Zenbat kidek osatzen duzue idazkaritza teknikoak?**

Fran Garagarza da zuzendaria. Idazkari teknikoak ni naiz, eta ikuskatzaileak koordinatzen ditut. Beste lankide bat ere badaukagu, euskarri teknikoek arduratzen dena. **Klubaren hazkundera elitean jarraitzeari lotuta dago?**

Eibarren lan egiteko moduak aldatu ditzakezu, eta helburuak ere bai, eta hazten jarrai dezake. Klubak kategoria galtzen badu, ordea, ez du edukiko gaitasunik gaur egungo erritmoa mantentzeko: lanpostuak, soldatak..

**Hazkunderaren eta egonkortasunaren isla da lehen taldearen jarduna aurten. Ligan 29 puntu, Europatik gertu...**

Nabaritzen dugu klubak sinesten duela gure lanean: konfiantza eman digu erabakiak hartzeko. Aldatu egin dugu filosofia: jokalariai erosten hasi gara, kontratu luzeak sinatzen... Horrek egonkortasuna ematen digu.

**Eibarrera entrenatzaile gisa iritsi zinen, baina berehala**

**aldatu zenuen karguz. Ez al duzu faltan botatzen zelai barruan egote hori, futbola ikusi eta bizitzeko perspektiba hori? Orain harmailetako eta bulegoko ikuspuntua daukazu.**

Zortzi urte eman nituen Ostadar SKTn. Eibarrera ere hala iritsi nintzen, baina Franek ulertu zuen nire profila aproposa zela beste kargu batzuk hartzeko. Aukera polita zela ikusi nuen.

Entrenatzaile mundua oso polita da, baina gogorra ere bai. Nire bizitza aldatzeko aukera eman zidan proposamenak, beharbada nire planen artean ez zegoena une horretan: futbola izatea nire ogibidea.

**Herriko Michelingo zelaian ordu asko igarotako zara.**



TXINTXARRI

**Zure lana dela eta, gutxitan agertzerik izango duzu orain...**

Pentsatu izan dut arratsalde batean gustura gerturatuko nintzatekeela Michelinera entrenamendu edo partiduren bat ikustera, baina oso gutxitan egin dezaket hori, lanagatik. Halere, argi daukat ez zaidala ahaztuko inoiz non ditudan sustraiak.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Inauteriek kolorez eta mozorroz bete zituzten Lasarte-Oriako kaleak eta txokoak

Euskal Inauteriak egin ziren otsailaren 18an. Goizean, Xumela abesbatza eta Ttiriki-Ttarrakako kideak kantuan eta dantzan aritu ziren *puska* eske. Arratsaldean lasarteoriatarak eta zubietarrak senidetu egin ziren Hipodromoko zubian, eta arratsaldean, Okendo plazara iristean, erromerian dantza egitera animatu ziren hainbat pertsona. Gero, Kaxkamalo sutara bota zuten, gure herritik uxatu egin zituzten gauza txar guztiak.

Otsailaren 25ean, berriz, inauteriek hartu zuten Lasarte-Oria. Askotariko mozorroak ikusi ahal izan ziren asteburuan zehar, koloretsuak eta originalak. Larunbatean konpartsak izan ziren protagonistak, goizean. Arratsaldean herrian barrena desfilatatu zuten. Parranderoak gaueko ordu txikiak arte geratu ziren kalean, Okendoko disko-jaian dantzan. Arratsaldean, berriz, mozorro lehiaketan hartu zuten parte zenbaitek, eta dantza egitera animatu ziren gero asko, Rockalean taldearekin.

2018 zoriontsua opa dizuegu!

# Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Barruko berrikuntzak

Estalkien berriztatzeak

Gremioen koordinaketa

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

# Migrazioa Lasarte-Orian

## "Errefuxiatuek eskubideak dituztela ahaztu egin dugu"

Errefuxiatuen krisiari Europako Batasunak emandako erantzun eskasaren ondorioz herri ekimenak indartu dira

### Txintxarri

Giza Eskubideak urratzen dituzten edozein jarrera arrazistaren aurka lan egiten du SOS Arrazakeria elkarteak, pertsonen eskubideen alde borrokan. Lasarte-Oriak Espainiatik inmigratio olatu handia jasan zuen 1982. urtean, eta azken urteetan, nazioarteko inmigratioa ere nabaria da herrian.

Mikel Mazkiaran lasarteoriatarra SOS Arrazakeriako kide da. Migratzaile eta errefuxiatuen artean ezberdintasun bat badela dio: "Immigrante bat bizi-proiektu bat hartu duen pertsona da.

Proiektu hori herrialde batetik beste batera aldatzen da, hainbat arrazoi medio. Errefuxiatu bat, ordea, bere herrialdeetik ihesi datorren pertsona bat da". Horiek Nazioarteko Hitzarmen baten bitartez eskubidea dute beste herrialde batera sartzeko, eta estatuak behartuta daude horiek hartzera".

Gaur egun errefuxiatuen eskubideak alde batera utzi dituzte hedabideek eta erakundeek, eta migratzaileen trataera berbera egiten diete. "Espainiako Estatutik etorri edo atzeritik etorri tratamendu berdina egiten zaie, baina ezberdintasun handi bat dago:

Atzeritartasun Legea". Hori izango da atzeritik etorritakoek aurkituko duten lehen arazoa.

Etorkin asko paperik gabe daude, "irregulartasun" egoeran: "Egoera horretan egoteak ondorioak ekartzen dizkie; ezin dute formalki lanik egin, eta kanporatze espediente bat ireki diezaiokeete arrazoi horrengatik".

Europako Batasunaren erantzun ezaren aurrean, orain arte inoiz ikusi ez diren elkartasun sare eta taldeak sortu dira, baina dagoeneko pasa diren olatuak dira. Mazkiaranek ez du gizartea oso aktibatua ikusten: "Gizartea gaien aktibatua egin beharko da, baina zaila izango da".

### Anitzen Sarea

Herritar anitzak biltzen dituen sare bat da Anitzen Sarea, herritarren arteko ezagutza, harremana eta aitortza sustatzea helburu dituena. Etxeko kontua



Mikel Mazkiaran herritarra SOS Arrazakeria elkarte kide da. TXINTXARRI

da migrazioa Enara Eizagirre Lasarte-Oriako elkarte arduradunarentzat. "Gurea oso herri aberatsa da, migratzailez osatutako herria baita. XX. mende hasieran 1.872 biztanle zituen, eta 2015erakoia ia hamarkoiztu egin da biztanleria. Hazkunde hori oso lotuta egon da lan-merkatuak erakarririk migrazioarekin".

Lasarte-Orian, inguruko beste tokietan bezala, bi migrazio olatu handi izan direla azaldu du Eizagirrek: 50-80eko hamarkaden artean Espainiatik etorritakoak, eta 90eko hamarkadatik aurrera gainerako estatuetatik etorriak. Bi migrazio kasu horietan, lan bila etorritako pertsonak dira nagusi.



**ELENA DERBINA, UKRAINIA.**

"2007. urtean etorri nintzen Lasarte-Oriara. Oso eroso sentitzen naiz Lasarte-Orian. Jendea zoragarria dela uste dut. Oso pozik bizi naiz herri honetan, eta ez dut Ukrainiara bueltatu nahi. Sasoeta-Sasoian Auzo Elkartearekin batera auzoko festak antolatzen parte hartzen dut, eta auzotarrekin batera hainbat ekintza antolatzen ditugu denok elkarrekin ondo pasatzeko. Semearen eta herritarren laguntzarekin, pixkanaka euskara ikasten ari naiz".



**JOSE PEREZ, HUELVA, ESPAINIA.**

"21 urte nituela etorri nintzen Lasarte-Oriara bizitzera. Bizkaian ari nintzen lanean, baina enpresan lanpostu bat suertatu zen hemen, Gipuzkoan, eta hona etorri nintzen lanera. Zumaburun jarri ginen bizitzen. Bertan hasi nintzen gazteekin lan egiten zuten elkarteekin kolaboratzen, eta auzoko festak antolatzen. Inoiz ez dut bazterketa arazorik sufritu Lasarte-Orian".



**NILSON OLIVARES TXILE.**

"2008. urtean etorri nintzen Lasarte-Oriara. Askotariko jatorrietako pertsona ugari bizi gara herrian, eta hori oso positiboa dela uste dut. Hona iritsi nintzenetik jende ugari ezagutu dut, eta gustura bizi naiz Lasarte-Orian, oso bizitza lasaia daramat. Lasarte-Orian bizi naizenez, Sasoeta-Zumaburuko Guraso Elkarte kide naiz, eta bertako kide guztiekin batera hainbat ekintza antolatzen ditugu. Euskara ikastea da nire helburuetako bat".

"2015. urtean etorri nintzen Lasarte-Oriara. Herriko jendea oso jatorra da. Jende asko ezagutzen dut dagoeneko Lasarte-Orian. Tabernara etortzen dira zerbeit hartzera, terrazan eseri eta beraiekin hitz egiten dut. Terrazan daudenean, euskaraz hitz egiten didate eta horrela ari naiz hemengo hizkuntza ikasten; bezeroekin. Ez daukat ikastera joateko denborarik. Festa ugari egiten dira herri honetan eta hori asko gustatzen zait hemengo giroa".



**SAGID HUSSAIN, PAKISTAN.**

"2009. urteaz geroztik bizi naiz Lasarte-Orian. Nik zorte handia izan dudala uste dut, izan ere, jendeak hona bizitzera etorri nintzenetik oso ondo hartu nau Euskal Herrian. Oso gustura bizi naiz herri honetan; oso herri alaia da, nire ustez. Jendea ezagutzen dut dagoeneko herrian, lagunak daukat eta oso-oso gustura sentitzen naiz. Euskara oso-oso zaila egiten zait. Lanak ez dit ikasteko denborarik uzten, baina anaiarekin oinarritzko hitzak ikasten ari naiz".



**MARCELA GONZALEZ, HONDURAS.**



25 urte herrigintzan zurekin



*aterpea*

*Lasarte-Orian bizi, Lasarte-Orian erosi*



Maitte

**B**ETELU



*2018 zoriontsua opa dizuegu!*



- B** Gestoria
- B** Aholkularitza
- B** Inmobiliaria zerbitzuak
- B** Aseguruak
- B** Etxebizitzen administrazioa

# Berdintasunaren bila kirolean ere

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko eguna zela eta, Lasarte-Oriako adin ezberdinetako emakume kirolari eta kirol adituen esperientziak bildu genituen. Izan ere, atzoko oztopoak oraindik erabat gainditu ez badira ere, aurrera pausoak emanaz geroz eta emakume gehiago dira kirolaren munduan aurrera egitea lortzen dutenak



**AMAIA RAMIREZ**

Kirol psikologoa.


"Errendimendu altuko kirolari dagokionean, profesional izatera iristea zaila da oso oraindik emakumeentzat. Ereduak sortu behar dira, egiten duten lana ikusarazi, babesleak erakarri, eta dituzten oztopoak murriztu".



**EIDER MENDIZABAL**

Bizkaia-Durangoko txirrindulari ohia.

"Nik barrutik bizi izan dudana kirolean emakumeak askotan kirol taldeaz gain familiaren laguntza behar izan dugu aurrera jarraitzeko, mutil gehienek kasuan taldea kargu egiten den bitartean".



**NIEVES CIVICOS**

Herri lasterkaria.

"Herri lasterketatan lehen hiru gizonetako irabazleentzako bakarrik izaten ziren sariak. Gaur egun, zorionez, hori ere aldatu da eta emakumeen kirola ere saritzen da".



**IRAIA IPARRAGIRRE**

Realeko jokalaria.


"Partidu gehiago ikusi ahal dira telebistan. Positiboki eragin digu guri, geroz eta jende gehiagok emakumezkoen futbola ikusten duelako eta konturatzen direlako kirola hau soilik ez dela gizonetakoena".



**MARIASUN YURRITA**

Tenislari ohia eta tenis irakaslea.

"Tenisean, nire garaian, emakumezkoak dirutan erdia irabazten genuen txapelketa edo sari berberak eskuratzeagatik. Gona jantera derrigortu gaituzte, eta emakume tenislariak itxurarengatik epaitzen dituzte".



**MANOLI ZUMETA**

ATC taldeko saskibaloia jokalaria ohia.

"Emakumeek oraindik oso zaila dute kirolaz bizitzea, eta gizonen agintean jarraitzen duten bitartean zaila egongo da. Guk kirolari esker lagun taldea osatu genuen. Marimutilak ginen".



**LORENA ZABALA**

CD Sumendiko izotz hockey jokalaria.

"Alde batetik, emakumeak oraindik ere gizonetakoak duten onarpen maila bera lortu nahian gaudela ikusten dut; nahiz eta emaitza berdina edo hobea lortzen ditugun askotan".



**PAOLA VEGA**

Beltzak Errugbi taldeko jokalaria.

"Emakume askok oso barneratuta dute errugbia gizonetako kirola dela, eta pentsamendu horrek errugbia probatzera oztopatzen ditu".



**INTZA FERNANDEZ**

Donostiarra taldeko arraunlaria.

"Estropada baten beroketa egiten ari ginela, lehorren zegoen gizon bati esaten entzun nion arrauna ez dela emakumeentzat eta ea azkar bukatzen genuen, berak gizonak ikusi nahi zituela".



**ENERITZ BUSTO**

LOKEko atleta

"Berdintasunaren bidean pertsonak gaitzabaz nabarmendu behar genuke eta ez gorputz polit edo itsusiak. Hitz egin dezatela gure jardunaz".



**NELY CARLA ALBERTO**

Chambray Touraineko eskubaloia jokalaria.

"Emakumeek profesional izateko gizonetakoak bezainbeste lan egiten dutela kontuan izanda, urratsak eman behar dira berdintasunerantz".

## "Ezin ditugu gure sustraiak inolaz ere galdu"

JOSE PEREZ SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEKO PRESIDENTEA

Semblante Andaluz elkarteak martxoaren 28tik apirilaren 2ra ospakizunez beteriko astea izan zuen, 25. urteurrena dela eta. Elkarte sorerria bizi eta garai ezberdinetan elkarte presidente izandako Jose Perezekin solasaldia izan genuen.

### Zergatik erabaki zenuten elkartea sortzea?

Pertsonak ezin ditu bere sustraiak galdu, eta horrela, atzera begirada bat bota eta horri heldu asmoz hasi genuen Semblanteko ibilbidea. Bakoitzaren jaioterria bizi osoan norberak eraman behar duen identitate bat da, ezin daitekeen inoiz alde batera utzi, betiere lekuko ohitura eta kulturara egokituaz.



TXINTXARRI

### Noiz sortu zenuten?

1992ko martxoaren 28an lehen biltzar orokor osagarriarekin jarri genuen martxan Semblante Andaluz. Hilabete

lehenago, Andaluziako egunez izan zedin saiakera guztiak egin genituen, baina tamalez, sortze prozesuan eman beharreko pausuk hilabete atzeratzea ekarri zuen.

### Zein bilakaera eduki du Semblante Andaluzek?

Orokorrean ez gara asko aldatu. Zerbait esatearren, egiten ditugun ekintzak modu serioago batean egiten ditugu gaur egun. Horiek behar duten kalitatea ematen saiatzen gara, eta batez ere, herriko beste elkarteekiko integrazioa bilatzen dugu, aniztasuna.

### Zer jendek osatzen du elkartea?

Askotariko tokietako jendea daukagu elkartearen; Euskal Herrikoa, Espainiako

eta atzerriko jendea ere badugu. Elkar ezagutzeko aukera ederra da elkarrekin gauzak egitea, eta integrazioan laguntzen du horrek".

### Zer berezitasun du urteurrenak?

Guretzako garrantzitsuak diren taldeen eskaintza zabalaren parte hartzea nahi genuen urteurren honetan; 25 urte horietan guztietan gurekin elkarlanean aritu diren taldeak.

### Berriz ere elkarte presidente izendatu zaituzte.

Bai. Ni Semblante Andaluz Elkarte sortze presidente izan nintzen, eta 25. urteurrenerako orain arte elkarteak izan dituen lehendakari guztiekien bilera bat egin genuen, eta Zuzendaritza Batzordean parte hartzeko eskaintza egin genien. Horrela, horietako bilera batean, maitasun arrazoiak medio, ni presidente izendatzea erabaki zuten.

## "Lehen lerroan jarri behar da presoen gaia"

JOXE MARI AGIRRETXE ETA IXIAR ARTEAGA

LASARTE-ORIAKO SAREKO KIDEAK

Bazkietza kanpaina eta mobilizatorako deia egin zuen Sare Herritarrek larri gaixo dauden presoen eskubideen alde



Arteaga eta Agirretxe. TXINTXARRI

### Txintxarri

Ixiar Arteaga eta Joxe Mari Agirretxe 2014tik Lasarte-Oriako Sareko eskaintzen duen gertutasunetik aritu dira lanean. Udal ordezkari, alderdi eta herriko hainbat eragileren atxikimendua lortu dute.

### Zein egoeran dago presoak gerturatzeko borroka?

Presoen gaiari dagokionean, dena estankatuta, geldituta dago. Gai hauen konpetentziak edo eskumenak, espetxeen alorrekoak, gure herritik kanpo daude eta

gugandik urrun hartzen dira erabakiak.

### Zein egoeran dago presoak gerturatzeko borroka?

Larriki gaixo dauden presoek kaleratzea eta dagoeneko kondena beteta daukatenen kasuak dira premia. Egoera honetan Ibon Fernandez Iradi herritarra dugu, dagoeneko kondena beteta du eta kalean beharko luke baita bere gaixotasuna dela eta, adituek esanda. Bestetik, Santi Arrospide,

bi aldiz betetzen ari da zigor bat, Frantzian eta Espainian". **Gizartean gero eta handiagoa da presoen aldeko mobilizazioa.**

Ez gaude sinistuta mobilizazio handi batek ekarriko duenik irtenbidea. Ikusten dugu beharrezkoa dela mobilizatuta eta saretuta egotea. Ez dago gure esku konponbidea, eta gora begiratuta ere, gure agintariei, ez dakigu horrelako gaiak zein punturaino lotzen diren.

## "Oso gogorra da jateko egunero ilara bat egin behar izatea"

NEREA ARTEAGA ZAPOREAK PROIEKTUKO BOLUNTARIOA Greziako Kios uhartean izan zen errefuxiatuei laguntzen

### Txintxarri

Hilabete igaro zuen Nerea Arteagak Kios irlako errefuxiatuen kanpalekuan. Zaporeak Proiektuarekin boluntario gisa joan zen bertara, eta beste zenbait zereginetan aritzeaz gain, sukaldeko lanetan ere aritu zen bere eguneroko jardunean.

Gogorra izan zen lasarte-oriatarrarentzat egunero bertako errefuxiatuak ilaran janariaren zain ikustea, itsaso bazterrean gerturatu eta bertan, hortzimugara begira errefuxiatuak etorkizunaz ametsetan behin eta berriro ikuste.




Haurrei aurpegia margotzen. NEREA ARTEAGA

Baina aldi berean, gozotik ere faltarik ez dute izan une gogor horiek guztiek. Prestatutako otorduen trukean irribarreak eta eskertzak besterik jasotzen ez zituzten une horiek lausotzen zuten egunerokoaren egoera latza.



JUBILATUEN BILTOKIA



LASARTE-ORIA, 1978tik

2018 zoriontsua opa dizuegu!!

Kale Nagusia 40 - Tel: 943 36 39 64 - LASARTE-ORIA

**Txintxarri**

Hilabete gutxitan urrats handiak eman zituen Axier Arteaga pilotariak (Lasrate-Oria, 1996). Binakako Promozio Txapela eskuratu zuen apirilaren lean, ehun herritar baino gehiagoren aurrean. Beotibar pilotalekuan urrezko ukutua eman zion egindako txapelketa bikainari, debuta egin zuen frontoi berebean. Sentsazio gazigozoak bizi zituen orduan. Apirileko larunbat hori, aldiz, bere "bizitzako egun politenetakoa" izan zen.

Txapelketako pilotari onenaren saria ere eman zioten, eta badirudi promozio maila, pixkanaka, txikia geratzen ari zaiola. Arteaga, hala ere, humil agertu da eta badaki gogoz egin beharko duela lan hemendik aurrera pilotaren eszenatoki zorrotzean urratsak ematen jarraitu nahi badu.

**Beotibarko finala**

"Oso hunkigarria. Agian, asko esajeratzea da, baina nire bizitzako egun politenetakoa izan zen apirilaren lekoa. Ez zen, ordea, larunbat hura bakarrik izan. Aurreko aste osoa izan zen oso berezia niretzat. Ingurukoek sarrera pila bat eskatu zituzten, eta nire arreba hortaz arduratu bazen ere, niri ere informazioa ailegatzeko zitzaidan. Finalerako gogoak zeuden eta horrek ere nire animoak are eta gehiago bizitu zituen.

Beotibarren lehenengo minututik nabaritu nuen zaleen babesa, eta oso eskertuta nago eman zidaten berotasunarekin. Dena perfektu atera zen eta ospakizunean ere ederki pasa genuen. Egia esan, amestutako eguna izan zen. Orain, lanean jarraituko dut halako gehiago bizi ahal izateko".

**Jon Erasun**

"Batez ere, Jon Erasun atzelariak eman didan segurtasuna nabarmenduko nuke. Kasik ez du pilotarik galtzen eta hori bertute handia da. Uste dut partiduro tanto batek edo bik alde egiten diotela batzuetan. Beste atzerlarien gainetik ibili da alderdi horretan, eta pilotarik galtzen ez duen zageroak asko errazten du aurrelariaren lana. Txapela irabazi izanaren gakoetako bat izan da, dudarik gabe.



Axier Arteaga, Loidibarren frontoian, Binakako Promozio Txapelarekin. TXINTXARRI

# "Pixkanaka aurrerapausuak ematen jarraitzea da erronka"

**AXIER ARTEAGA PILOTARIA**

Binakako txapela irabazi eta berehala erronka berriak azaldu zaizkio Axier Arteagari. Bide onetik doa Lasarte-Oriako pilotaria, nahiz eta badakien lan asko duela egiteko

Egia da, beste atzelari batzuk gehiago nagusitzen direla pilotean, baina oro har, txapelketa bikaina egin du Jonak.

**Lasarte-Orian partida**

"Egia esan, arantzaxoa kentzea lortu nuen. Irabaztea lortu genuen Peña II.aren eta Salaverriren aurka, eta are garrantzitsuagoa dena, joko maila ona emanez. 22 eta 10 nagusitu

ginen gerora finalean topatu genuen bikotearen kontra. Gainera karga bat kendu nuen garaipen horrekin. Izan ere, aurretik Michelinen jokatu

## "LASARTE-ORIAN ARANTZATXOA KENTZEA LORTU NUEN, JOKO ONA EMANEZ"

bi partiduetan ez nuen nire mailarik onena emateko aukerarik izan, eta profesional mailako debuta egin nuen egunean ere galdu egin nuen. Familia, lagun eta herritarren aurrean partidu on bat egiteko gogoia nuen".

**Buruz burukoa**

"Gutxi jokatuakoa naiz buruz burukoan. Afizionatu mailan eman nituen urteetan binaka

## "MANOMANISTA ONA IZATEKO GAIA DUDALA ESATEN DIDATE, BAINA LANTZEN EZ BADUT JAI DUT"

eta lau t'erdian jokatu nuen gehienbat. Lehengo urtean Buruz buruko Promozio Txapelketa jokatzeko aukera izan nuen, baina finalerdietara ailegatzeko ere, baina ez dut uste nire mailarik onena eman nuenik.

Manomanista ona izateko gaia dudala esan didate, baina sustantzia hori ez badut lantzen jai dut. Nire onena ematen saiatuko naiz partidu hauetan, pixkanaka hobetuz. Sariak eta txapelak ez dira ezerezetik ateratzen, baina batzuetan egindako lanaren fruitua gutxien espero duzunean etortzen zaizu. Fisikoki ondo nago, eta maila ona eman dezakedala argi daukat. Ez dakit irabazteko nahikoa izango den, baina ahalegina egingo dut, behintzat".

**2017a ondo hasi**

"Aurten, lehenengo urteko txapelketarekin alderatuta aurrerapausu bat eman dudala uste dut. Helburua pixkanaka hobetzen joatea da, eta badakit oraindik ere lan handia dudala aurretik, baina bide onean noala uste dut. Zentzu horretan, buruz buru pilotari hobe naizela uste dut. Horrek ez du esan nahi aurten emaitza hobe lortuko dudarik edo finalera iristea gutxieneko helburua denik. Aurkariak ere jokatzeko dute, eta aurtengoak oso gogorak dira. Gogor saiatu beharko naiz zerbait polita lortu nahi badut. Aldi berean, fisikoki oso esaxietea den modalitatea da buruz burukoa, eta gustatuko litzaidake eskuko minarekin ez ateratzea".

**Etorkizuneko erronkak**

"Orain arteko mailari eustea eta hobetzen joatea helburu konstante dela esango nuke. Gustatuko litzaidake hilabete hauetan eduki dudako joko mantentzea eta fisikoki eta eskuetatik osasuntsu egotea. Hori bermatuta, lanean jarraitzea da aurretik ikusten dudako erronka nagusia. Orain arte bezala, urratsak ematen joan nahi dut, pixkanaka pilotari hobe izateko".

# Ttipi-ttapa, Lasarte-Orian euskararen alde korrika

## Txintxarri

Lau urtetik behin izaten dira ospakizun handienak. Horrela da, behintzat, Lasarte-Orian. Olinpiar Jokoen antzera, lau urtetik behin egiten da herrian Euskararen Maratoia. Eta era berean, lau urtetik behin igarotzen da Korrikaren ilara amaigabea Lasarte-Oriako kaleetatik.

2017an gauzez egokitu zen euskararen festa handia. Baina iluntasunak ez zituen herritarrak kikildu, eta jende ugari zen korrika. TXINTXARRI-k eraman zuen metro lekukoa metro batzuetan, herriko beste eragilerekin batera.

Apirilaren 4ean iritsi zen Korrika herrira. Azken urteetan bezala egin zuen, gauzez. Donostiatik zuzenean sartu zen Lasarte-Orian. Herriko hainbat eragilek garraiatu zuten euskararen aldeko lekukoa: Aterpea merkatarien elkarteak, Ostadar SKTk, Muntari AEK-ko kideek, Xumela kantu-jirako lagunek, ikastetxetako ikasleek, Sorgin Jaiak taldekoek...

Korrikaren bueltan hainbat ekitaldi egin zituzten aurreko eta ondorengo egunetan. Apirilaren 1ean, larunbata izanda, Korrikaren festa handia egin zuten: kantu jira, herri bazkaria, haurrentzako jolasak...



TXINTXARRI aldizkariko langileak lekukoa hartu zuten unean. TXINTXARRI

## la 25 milioiko aurrekontua onartu zuen udalak 2017rako

PSEren aldeko zazpi botorekin onartu zen aurrekontua. EAJ eta ADLOP abstenitu, eta EH Bilduk eta PPK aurka egin zuten

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 24.920.428 euroko aurrekontua eduki zuen 2017an. Egitasmoa eztabaidatu eta onartu ala ez erabakitzeak, ezohiko saioa egin zuten apirillean udal korporazioko kideek. Aurrera atera zen proiektua. Aldeko bozkak zazpi izan ziren

(PSE-EE); aurkakoak lau (EH Bildu eta PP) eta eta abstentzioak, bost (ADLOP Lasarte-Oriak Ahal Du eta EAJ).

Hala ere, EH Bilduk eta PPK osoko zuzenketa bana aurkeztu zioten egitasmoari. Horrez gain, 27 emendakin partzial aurkeztu zizkioten, eta bost tekniko.

Horietatik hamabost onartu eta hamazazpi baztertu zituzten.

Jesus Zaballos alkateak esan zuen "epe luzera egindako aurrekontuak" direla. Atsokabarreko kirol instalazioen egitasmoari dagokionean, berriz, gogorarazi zuen arau subsidiarioek zehazten dutela kirol ekipamendurako izan behar dutela lur horiek, eta kiroldegi berri bat egin aurretik Atsokabarreko instalazioak egin behar direla. EH Bilduk kritikatu zuen herritarren parte hartzerik gabe onartzea aurrekontuak.



Udalbatzarra, aurrekontuak bozkatzeko. TXINTXARRI

*Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On bat opa dizuegu!*



**ALBOKA**  
Abesbatza  
LASARTE-ORIA

Abestea gustoko baduzu gurekin etortzea gonbidatzen zaitugu. Ez da beharrezkoa solfeoa jakitea, 16 eta 55 urte artean egotea eta abesteko gogoia izatea nahikoa dira. Sartu [www.albokaabesbatza.com](http://www.albokaabesbatza.com)-era informazio gehiagorako eta anima zaitez entsaio batera etortzera eta gure giroa ikustera.

Posta elektronik.: [info@albokaabesbatza.com](mailto:info@albokaabesbatza.com)





Ekitaldi ugari egin zituzten Okendo plazan. Erabaki lelopeko afixekin argazkia atera zuten horietako batean. TXINTXARRI

## "GOXO, JAI GIROAN PLAZARATU DUGU GAIA, ETA DENA ONDO ATERA DA", ESAN DU GED-KO CARRASCOK

Lasartearra elkartearen, Zabaleta Auzolanen lokalean, Oriako Denda Berrin eta Sasoeta auzoan egon ziren.

Sei gune horietan bezainbesteko mugimendua egon zen Okendo plazan. 11:00etan hasi zen *Erabaki Fest*-en egitaraua, zunba saioarekin. Gorputza astindu zuten lasarteoriatarrek, eta baita Kukuka antzerki eta dantza eskolako taldeek eta Ostadar Ipar Martxako kideek ere, koreografia anitzak taularatu. Eguerdian berriz, *Hamaika itxaropen* abestiaren sortzaileen doinuek lagunduta, zerurantz altxatuko eskuek hartu zuten plaza. Eskuen ostean iritsi zen olatu erraldoia, Porrotx pailazo bihurriak gidatuta. Ehundaka herritar elkartu ziren Okendon, *Erabaki* afixak eskuetan zituztela.

Festak Unai Muñoa eta Ane Labakaren bertsoekin, erromeria inprobisatuekin eta Safri Duo taldearen doinuekin jarraitu zuen.

### Olatua Euskal Estatuaren alde

Guztira, 52 herritako biztanleei galdetu zitzaizen egun horretan ea Euskal Estatu independente bateko biztanle izan nahi ote zuten. Galdera ezberdinak mahaigaineratu dituzte udalerrri bakoitzean, baina guztien funtsa berbera zen: nazio subiranotasuna garatzea.

62.736 euskal herritarrek eman zuten bozka maiatzaren 7ko igandean, errolda osoaren laurdenak gutxi gora behera. Hala, %25,30ko parte hartzearekin, maiatzaren 7ko olatuak aurrekoek edukitako emaitza antzekoa izan zuen. Esaterako, Tolosaldean, Oarsoaldean, Hernanin, Astigarragan eta Larrabatzun antolatutako galdeketak %24,83ko parte hartzea bildu zituen.

Kasu honetan, ordea, inoiz baino pertsona gehiago deitu zituzten hautesleketara: Debarrena, Durangaldea, Lea-Artibai, Uribe-Butro, Uribe Kosta eta Urola Kosta eskualdetako eta Legutio, Orozko, Urkabustaiz, Zeanuri, Usurbil, Zubieta eta Lasarte-Oriako herritarrek.

### Txintxarri

Euskal Herriko herri asko astindu zituen burujabetzaren aldeko olatuak maiatzaren 7ko igandean. Lasarte-Orian sentitu ziren lurrikara horren astinaldiak: 2.000 pertsona baino gehiago gerturatu ziren sei bozkaletuetako batera, Loratu Taldeak proposatutako bi galderen inguruko iritzia ematera. Baiezkoa argi eta garbi nagusitu zen bozka ematera animatu zirenen artean. Hain justu, 2.094 lagunek baiezko bikoitzarekin erantzun zuten. Alegia, erabakitze eskubidearen alde egin zuten, eta estatu burujabe nahi dutela aldarrikatu zuten gero.

Parte hartzea izan ohi da gisa horretako ekitaldi baten arrakasta aztertzeko neurgailua. Herrian 2.303 lasarteoriatarrek gauzatu zuten erabakitze eskubidea; parte hartzea %14,78koa izan zen. Dena den, maiatzaren 7an gertatutakoa zenbakiez harago

# Etorkizuna Gure Esku Dago

Euskal Herriko 52 herrik izan zuten maiatzaren 7an erabakitze eskubidea, eta horien artean baita Lasarte-Oriak ere. Guztira 2.303 herritar gerturatu ziren bozkalekuetara, hau da, ia %15ekoa izan zen parte hartzea. Festa giroan ospatu zuten bozkatzeko eskubidea

joan zen. Lasarte-Oriako Gure Esku Dagoko kide Jose Carlos Carrascok argi asko azaldu zuen: "Goxo, jai giroan plazaratu dugu gaia, ongi egin dugu dena; batzen gaituena ospatu dugu, ez banatzen gaituena. Hasi aurretik bagenekien irabazi egingo genuela gaur. Irabazi dugu. Lasarte-Orian".


Jai giroa izan zen nagusi Lasarte-Orian, goizetik iluntzera arte. Bolondresak, antolatzaileak eta berme-batzordeko kideak goizean goiz jaiki ziren, ilusioz beteriko egun bati ekiteko.

### Iluntzera arte jai giroa

Hautesleketako batean, Arrieskalleta elkartearen, elkartu ziren hainbat antolatzaile,

goizeko mezua irakurri eta herritarrek botoa ematera animatzeko. Hortik aurrera ireki ziren gainontzeko hauteslekuak ere, etxafero-soinuek hauspotuta.


Goizean zein arratsaldean zehar ilarak ikusi ahal izan ziren bozkalekuetan, herrigunekoetan batez ere: Arrieskalletan eta Ostadar SKTren egoitzan. Gainontzeko hautestontziak



BAI/BAI BAI/EZ BAI/ZURIA EZ

1) "Erabakitze dagokizun eskubidea erabili nahi duzu interes publikoko gaietarako?"

2) "Zure erantzuna baiezkoa bada, izan nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra?"



HAUTESLEAK ABSTENTZIOA

### Azalpena

15.548 biztanlek izan zuten bozka ematera joateko aukera igandean, Lasarte-Orian.

Horietatik guztietatik, 2.303 lasarteoriatarrek gauzatu zuten zegokien eskubidea; ehunekotan zenbatuta, herritarren %15a gerturatu zen hautesontzietara.

## "Kirola egiteko aukera eman nahi diogu ume orori"

AMAIA CADARSO ETA JURGI OLASAGASTI OSTADAR INKLUSIOKO ARDURADUNAK

Kirola oso garrantzitsua da ume ororentzat. Hala ere, denek ez dituzte aukera berdinak izaten. Esaterako, batzuentzat jolas orduan gainerako neska-mutilekin aritzea ezinezkoa da, gurpildun aulki batean ibili behar direlako. Ostadar SKTn atal berria ireki dute Amaia Cadarsok eta Jurgi Olasagastik, hain zuzen ere arazo horri erantzuna emateko.

### Zer dela-eta jo zenuten Ostadar SKTregana?

Jurgi Olasagasti: Eskola kirola modu inklusibo batean jorratuko zuen atala edo kirol egokitua eskainiko zuen kluba sortzeko asmotan genbiltzan. Bagenekien horretarako beharra zuten zenbait haur bazeudela eta aukera ezberdinak ikusi genituen. Aukera logikoena eta onena



iruditu zitzaigun atal ezberdinak dituen elkarte batean sekzio berria irekitzea **Zein da zuen proposamena?**  
JO: Haurrei kirola hastapen mailan egiteko aukera eskaintzen diegu. Askotan, ume asko geratzen dira beraien zentrotan kirola

egin ezinik. Hori, eskola kirolean daudenean; behin etapa hori amaituta, bazterketa hori are eta handiagoa izaten da. Kirolean sinesten dugu eta bai osasunaren aldetik baita sozializazioaren aldetik ere ezinbestekoa iruditzen zaigunez, enfoke hori aukeratu dugu: kirol hastapena eskaini, gero kirol ibilbide batean txertatu ahal izateko.

### Kontzientziaioa falta da alor honetan?

Amaia Cadarso: Batzuetan bai. Baina kontzientziazioa soilik ez, baliabideak eta tresnak ere falta dira. Errekurtsoak faltan botatzen ditugu batzuetan. Egoera jakin batzuei nola aurre egin jakin behar da, eta zentro askotan ez dakite zer nolako erantzuna eman behar duten.

JO: Sentsibilizazioaren aldetik ere, gabeziak sumatzen ditugu. Urritasuna, lesioak edo ezgaitasuna bezalako terminoei buruz hitz egiten denean, gizartean konotazio negatiboak ematen zaizkiela iruditzen zaigu. Nahi gabe egiten da, eta nahasmen handia sortzen da gai honen inguruan.

AC: Ezintasuna hitzak berak sortzen du nahasmen handia. Nork ez du ezintasunik edo ezgaitasunik? Denok ditugu gure abileziak eta ahuleziak, egin ditzakegunak eta egitea zailago egiten zaizkigunak.

JO: Azken batean, guk nahi duguna da umeek jakitea eta sinestea kirola praktika dezaketela inongo arazorik gabe. Noski, horretarako metodorik eraginkorrena beraiekin lanketa zuzena egitea da. Kasu horiek identifikatzen dituzten pertsonak, normalean, gizarte langintzan daudenak dira, eta horregatik, haiekin ere lankidetzaz estutu beharko dugu. Haiek ere zuzenago iristen direlako.

## Zabaletako Auzolan Elkarteak, 25 urtez

### Txintxarri

Hogeita bost urtetan, ibilbide luze eta oparoa egin du Lasarte-Oriako Zabaleta Auzolan elkarteak. 1991. urte amaieran, abenduan, eman zituen lehen urratsak eta orduaz geroztik, etenik gabe, mende laurdenez auzoaren alde lanean dihardute elkarteko kide eta auzotarrek. "Pozgarria da 25 urteren ondoren auzoaren alde lan egiten jarraitzea", esan zioten elkarteko kideek TXINTXARRIri auzoko festen atarian.



Auzolan elkarteko kideak, festen egitaraua eskuetan. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Mugarik gabeko lengoaia

Urtero legez, ederki ospatu zuen Dantzaren Nazioarteko Eguna Kukuka eskolak, udalarekin elkarlanean antolatutako ekitaldian. Arantza Iglesias, Myriam Perez eta Sergio Nguema dantzarien koreografiekin gozatu zuten herritarrek. Irudian, Perezen saioa Villa Mirentxun.

# Jalgune

Familia eta lagun lasarteoriarrei,  
Eguberri onak opa dizkizuegu eta  
2018. urtean zuen ametsak bete  
daitezela!

URTE BERRI ON!

Beko kale bidea 1, 2. solairua • LASARTE-ORIA



# Guztion San Pedro jaiak

Lau egunetan egitarau zabala izan zen



Semblante Andaluz elkarteko haurren dantz taldeek bota zuten haurren txupina. TXINTXARRI



Gure Esku Dago ekimenak bota zuen Sorgin Jaietako txupina. TXINTXARRI



Sorgin dantzak Lasarte-Oriako kaleak bete zituen. TXINTXARRI



Helduen danborradak kaleak girotu zituen. Haurrek berriz, Loicibarren pilotalekuan egin zuten euria zela eta. TXINTXARRI



Semblante Andaluz elkartea izan zen omendua. TXINTXARRI





San Pedro Jaietako bertso saioan Patxi Etxeberriari omenaldia egin zitzaion. TXINTXARRI



Minidiskoan ere haurrek ederki gozatu zuten. TXINTXARRI



Go!azen telesailko kideek Isla plaza bete zuten. TXINTXARRI



Bigantxak Isla plazan izan ziren. TXINTXARRI



Su-festak eman zion amaiera San Pedro jaiei. TXINTXARRI

San Pedro bezpera goizean haurrek hasi zuten festa. Semblante Andaluz izan zen 2017ko omendua, eta elkarteko gazteen dantza taldeek piztu zuten txupina. Motorrak berotu ostean, iritsi zen festetan bete-betean murgiltzeko unea. Sorgin Dantza tradizio bihurtu da dagoeneko herrian, oso zabaldua. Adin guztietako jendeak parte hartu zuen. Une berean, gazteak Isla plazatik abiatu ziren kuadrillen jaitsieran. Arratsaldeko suziriak ireki zituen ofizialki San Pedro jaiak. Semblante Andaluz elkarteko kideak arduratu ziren aurten txupina pizteaz. Esker hitzak izan zituzten herritarrentzat. Afaltzen hasi aurretik, Sorgin Jaien txupinazoa izan zen Okendon. Gure Esku Dago dinamikako kideak gonbidatu zituzten txupinazora, eta erabakitze eskubidearen alde eginda hasi zituzten festa alternatiboak.

Semblante Andaluzi omenaldia, bertsoak eta Patxi Etxeberriari omenaldia, dianak, danborradak, kontzertuak, antzerkiak, dantzaldiak, lehiaketak, herri kirolak, pilota, zezen suzkoa, sardin eta sagardo dastatzea, haur parkeak... adin ezberdinei zuzendutako ekintzak izan ziren lau egunetan.

Gonbidapenik ez bazuen ere, euriak ez zuen hutsik egin aurtengo sanpedroetan. Hainbat ekitaldi bertan behera utzi ziren. Hala ere, gonbidatu honek ez zuen jai giroa zapuztu.

Ohi bezala, su festak eman zion amaiera San Pedro jaiei eta Lasarte-Oria egunerokotasunera bueltatu zen.

INPRENTA  
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

Goza ezazue jai hauetan  
Urte berri on!

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 370 738 info@antza.eus  
www.antza.eus

# "Bestela iritsiko ez liritekeen pelikulak jartzen saiatzen gara Okendo Zineman"

**LAURA NOGUERAS ETA PILI GARCIA OKENDO ZINEMA TALDEKO KIDEAK**

Ostadar kirol taldeak Axier Arteaga pilotaria eta Okendo Zinema taldea saritu zituen: Auzolan saria eskuratu zuten zinemazaleek. Ohiko film komertzialez harago, ikus-entzunezko alternatiboak eskaintzen hasi zen kluba orain dela hiru hamarkada

## Txintxarri

Gipuzkoako zinema elkarterik zaharrenetarikoa da Okendo Zinema Taldea. 1986. urtean sortu zuten, nahiz eta ibilbide luze horretan etenaldi eta gorabehera batzuk izan dituen. Herriko beste zinemazale amorratuekin batera, zinema komertzialetik harago kalitatezko pelikulak eskaintzen dituzte bi astean behin, ostiraletan. Zine foruma egiten dute, eta hainbatetan filmeetako zuzendari eta aktoreak gobidatzen dituzte, *Handia* filmaren kasuan, esate baterako.

## Auzolan saria

"Ez dut uste gure lana saritzeko modukoa denik. Gustatzen zaigun gauza bat indartu eta bultzatu nahi dugu, eta horretan gabilta. Beti herriko elkarrekin parte hartu dugu, eta zabalik egon gara elkarlanean aritzeko".

## Elkartearen sorrera

"Zinemarekiko grina handia zuen kuadrilla batek sortu zuen. Proposamen bat egin zuten udalean, eta, ostegunero hasieran, eta igandetan gero, umeentzako, pelikulak ematen hasi ziren".

## Donostiako Zinemaldia

"Guretzako harrobi bat da, handik ateratzen ditugu gero urte osoan kultur etxean ematen ditugun pelikulak. Goi mailako zinemaldia da. Jendea ez da konturatzen zer nolako altxorra den".

## Lehia handia

"Min ematen digu zinema komertziala horren gertu edukitzeak, ezin dugulako harekin lehiatu".

## Beste klubuen egoera

"Beste zinema klubetan egoera desberdina da. Esaterako, Beasainen haiek kudeatzen dute dena. Baita Gernikan ere. Baina

haiek bete egiten dituzte aretoak. Zergatik? Gernikan hori delako duten zinema bakarra, eta bestela Durangora edo Bilbora joan behar dutelako. Hor sortu duten giroa da garai batean Lasarte-Orian zegoena: ostiraleko plana da bokadilloa jatea, eta gero pelikula ikustea. Hori hemen egitea ezinezkoa da".

## Pelikulen kontsumoa

"Zinemarekiko joera bat indartu da, eta oso eroso egin du zinema komertziala ikustea. Gure pelikulak ez dira horrelakoak".

## Ikusleak

"Pelikulak ikustera etortzen den jendearen batzbesteko adina 35-40 urte baino zaharragoa da".

## Ohitura aldaketak

"Gazteak orain ez dira zinemara joaten, dena Internet bidez ikusten dute. Saiatu gara haiek



Pili Garcia eta Laura Noguera Auzolan saria eskuetan. TXINTXARRI

erakartzen, gazteen artean arrakasta izan dituzten pelikulak jartzen. Baina ez dira etortzen".

## Film sakonak

"Proposamen bat egiten duten pelikulak gustatzen zaizkigu, sakontasun batean sartzen direnak. Mundua, pertsonak... hobeto ezagutzeko. Horrelako bidaia bat egiteko, murgiltzeko".

## Euskal zinearen pisua

"Oso garrantzitsua. Guretzako berebizikoa da, eta bultzada handia ematen diogu. Aukera dagoenean, beti eskaintzen dugu euskal zinema".

## Bisitak

"Joxe Mari Goenaga etorri zen dokumentalak eta pelikulak aurkeztera (*Loreak* eta *Lucio*); Asier Altuna ere etorri zen *Amama*-ren emanaldira".



TXINTXARRI

## Suak gaitz guztiak erre zituen

Oroitzen txarrak San Joan sutan errez ekin zioten udari lasarteoriarrek. Garrek Andatza plaza argitu zuten 2017an ere. Erketz EDT taldeko dantzariak eta udal korporazioa udaletxe zaharretik abiatu ziren plazara. Iritsitakoan, hainbat minutuz aritu ziren dantzan, Alboka abesbatzaren eta Zero Sette akordeoi taldearen erritmora. Zendu berri zen Xabier Gonzalez Ubegunen familiari agurra dantzatu zieten. Horren ostean, sua piztu zuen Jesus Zaballos alkateak.

## 50 urte eta hainbat ekintza

Palomo Linares elkarteko kideek urrezko ezteiak ospatu zituzten ekainaren 17 eta 18an. Elkartearen bandera altxa zuten, eta ATLOko kideek eskainitako danborrada entzun. Palomo Linaresen egoitzako plazan bazkaldu zuten gero.

Bazkalostean barre algarak entzun ziren plazan. El Feli artistak bakarrizketa saioa egin zuen. Ondoren, gaztetxoek zezen eta zaldien inguruan egin zuten lasterka Ganbo kalean eta Isla plazan. Gauean ere bai, baina zezen suzkoaren aurrean.

Igandean zehar ere hainbat ekintza egin zituzten: emanaldia eskaini zuen Suberri Akordeoi Taldeak. Txikienek primeran pasa zuten puzgarrietan, eta, bukatzeko, elkartearen bandera jaitsi eta ereserkia abestu zuten.



TXINTXARRI

# Ekintzez beteriko Santa Ana egun borobila

Santa Ana eguna da uztailaren 26a. Egun seinalatua izaten da hori Lasarte-Orian, ekintzez beteriko jai eguna ospatzen baita herrian. 2017an ere ez zuen hutsik egin hitzorduak, eta dantzan eta giro ederrean igaro zuten eguna lasarteoriarrek

## Txintxarri

Santa Anaren omenez, jai eguna ospatu ohi da Lasarte-Orian uztailaren 26an. Hainbat ekintza finko bilakatu dira egun horretan. Santa Ana pala txapelketa da horietako bat. 36.a izan zen 2017ko final nagusia, eta Astiazaran-Arluziaga bikoteak eskuratu zuen garaipena azkenean.

Erketz Euskal Dantza Taldearen aurrekuarekin hasi zuten Santa Ana eguna. Aurretik meza egin zuten Brigitarren komentuan, eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako hamaiketako gozatu zuten mezatarrek gero. Ohiko artisautza azoka ere ez zen falta

izan. Arratsaldean ere ekitaldi ugari izan ziren.

## Parodia

"Bando, bando, alkateak esan do". Hitz horiek entzun orduko bada irrifarreari eutsi ezin izan zionik. Santa Ana egunez ez zen falta izan eguneko ekitaldi izarra: parodia. Urteko gaiak umoretik jorratu zituzten aktoreek: Euskararen Maratoia, irailean hipodromoan egin zen Kutxa Kultur Festibala, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko obrak, Hipodromo etorbidean eraikitzen ari diren etxebizitzak eta Goiegiren ordezkoa izango den Burger King jatetxea.

Horiek izan ziren oholza gainean aipatu ziren gaietako batzuk. Azkenean, errugabe gutxi izan ziren: "Sutara kondenatuak izan zarete, eta sutara joango zarete", ebatzi zuten basajaunek.

Erketz Dantza Taldea izan zen aurtengo parodiako omendua, eta Sorgin Dantzako irudi baten oroigarria jaso zuten, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik.

Ohiturari jarraikiz, parodian parte hartu zuten aktore, trikitilari eta suhiltzaileek Virgen de Guadalupe elkartearen afaltu zuten aurretik, desfilean Okendo plazarantz atera ziren arte.



Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak karkaban dantzan. TXINTXARRI



Parodian parte hartu zuten aktoreak, familia argazkian. TXINTXARRI

## Oria auzoak bi Ama Birjinen omenezko festak ospatzen ditu

Karmengo jaiak Oria auzoaren ikur dira Lasarte-Orian. Gogotik ospatu zuten Oriako auzotarrek Karmen eguna 2017ko uztailan. Eguraldi bikaina lagun, ekintzaz beteriko egitarauaz gozatu zuten, goizetik hasi eta iluntzera arte.

Auzotarrak eguerdi partean meza nagusia entzutera joan ziren Karmengo Amaren kaperara, eta meza amaitzerako zain zeukaten hamaiketako kaperara alboko plazarxoan.

Ohiko Sorgin Dantza ere izan zen. Karmengo Amaren kaperan elkartu ziren dantzariak, eta pixkanaka-pixkanaka Bruneteneako parke aldera abiatu ziren.

Bien bitartean, ur jolasetan arituz eta puzgarrietan jauzi eginez egin zioten aurre beroari gaztetxoek. Brunetenean bertan aritu ziren arratsaldean zehar, geratu gabe.

Eta jaiak ezin hobeto bukatzeko, auzotarrek gorputza

astindu zuten Ibai Berriak taldearen doinu dantzagarriek lagunduta.

## Basaundin San Inazioak

Basaundi bailarari iritsi ziztaion txanda gero. San Inazio eguna iristerako, auzoan dena prest zuten asteburua jai giroan pasatzeko. Adin tarte guztientzat pentsatuta egin zuten egitaraua: kontzertuak, puzgarriak, herri bazkariak eta gastronomia lehiaketekin izan zuten auzotarrek.



Oriako jaietako Sorgin Dantza, Brunetenean. TXINTXARRI

**TXINTXARRI  
PUBLIZITATEA:**


publizitatea@ttakun.eus  
**943 371 448 (106)**  
**646 82 44 66**



Geltoki kalea 4,  
Lasarte-Oria

**adats**

ILE-APAINDEGIA



**2017 zoriontsua  
opa dizuegu!**

Mugikorra: 600 52 39 88  
Geltoki kalea 3, LASARTE-ORIA

**SEMBLANTE ANDALUZ**

**Gure Rocio-ko Ama  
Birjinaren kofradiak  
2018 zoriontsua opa  
dizue**



# "Talde dinamika sortzea da gure aurtengo erronka nagusia"

**GORKA ALVAREZ** REALEKO BIGARREN ENTRENATZAILEA

Gipuzkoako talde askotan entrenatzaile aritu ostean, Realeko deia jaso zuen Gorka Alvarez herritarrek. Ilusioz hartu zuen erronka, eta azken urteetako dinamika positiboa jarraitzeko asmoarekin hasi zen lanean

## Txinxtarri

Ilusioz eta gogoz hartu zuen Gorka Alvarezek erronka. Realeko bigarren entrenatzaile izendatu zuten, Juanjo Arregirekin lan egiteko. Gaur egun Gonzalo Arconada da taldearen lehen entrenatzaile, eta berarekin ari da lanean Alvarez.

## Ibilbide luzea

"Urte gehienak Añorgan eman ditut. Gehienbat, emakumezkoen taldean. Bigarren entrenatzaile izan nintzen, Unai Gazpiorekin batera, eta gerora taldea hartu nuen. Tartean, mutilen kadeteen entrenatzaile ere izan naiz. Iazko denboraldian esperientzia txarra izan nuen Usurbilgo mutilekin. Jende gutxi ginen, eta, horregatik, taldea uztea erabaki nuen. Hernanin aritu naiz aurten".

## Aurten bigarren entrenatzaile

"Gipuzkoarra eta Reala gertutik bizi izan duen pertsona izanik, horrelako deia jasotzea pozgarria eta berezia izan da. Harridura puntu bat ere sentitu nuen. 15 urte inguru daramatzat entrenatzaile lanetan, eta Lehen Mailatik gertuago egon nintekeen Añorgan nabilenean".

## Aldaketak taldean

"Bajak egon diren arren, uste dut taldea, oro har hartuta, nahiko eginga dagoela. Bai Juanjok baita nik ere urte asko eman ditugu emakumezkoen futboleko. Hark Euskal Selektzioan eta nik Añorgan, Mariñon, Hernanin... Ondorioz, jokalaria asko ezagutzen ditugu. Batzuk guregatik pasa direlako, eta beste batzuk

egindako jarraipenagatik edo sortutako harremanagatik".

## Joko estiloa

"Askotan esan izan da entrenatzaile aldaketarekin joko aldaketak etortzen direla. Ez dut uste goitik beherako aldaketarik egongo denik. Gure ideiak pixkanaka sartu nahiko ditugu, baina iraultza handirik egin gabe".

## Bloke gaztea

"Emakumezkoen futbola asko aldatzen ari da. Berezi, Lehenengo Mailan. Jokalariak gero eta gazteago iristen dira elitera, eta, aldi berean, ibilbidea gehiago luzatzen dute. Lehen ohikoa zen 24 edo 25 urterekin futbola uzten hastea. Puntako taldeetan, batez ere, 29 urteren bueltako jokalaririk ez daude. Egia da gure taldean halako

gutxi daudela eta talde gaztea garesti. Gure gazteek esperientzia dute, eta futbol mailari dagokionez prest daude".

## Iazko bolada ona

Realaren kirol maila goraka doala uste dut. Igor San Miguelen lehenengo urtean eskuratutako bosgarren postu hura izugarria izan zen. Emaitzak ez ezik, ondo jokatzea lortu zuen taldeak. Bigarrenen, esan bezala, hasiera panggalago horrek pixka bat zigortu zuen. Gerora, ziklo onak izan dituzte, sentsazioak berreskuratu dituzte sei edo zazpi partida jarraian irabazita. Liga ondo amaitu zuten eta Kopan gertatutakoa pena izan zen".

## Goi maila

"Ez dut esango goi mailako taldeen mailara ailegatzen ari



Gorka Alvarez. TXINTXARRI

garekin, baina haiekin lehiatzeko gai garesti erakusten ari gara. Gertuago gaude eta iazko bukaera indartsu horrek lagunduko gaitu, batez ere, denboraldi berriari konfiantzaz ekiteko".

## Erronka nagusia

"Ez naiz oso erronkazalea, nahiz eta barnean lanean ari garenik gure buruari helmugak jarri. Gu berriak izanda, erronka nagusia lanean jendea gustora sentitzea da: talde dinamika sortzea. Eta noski, iaz amaitutako bolada on horri jarraipena ematea gustatuko litzaiguke".



TXINTXARRI

## Haurrak, obren esperoan

Berez, hilabete gutxitarako izan behar zuten Zumaburu ikastetxe lanek. Behin-behinean HH2 eta HH3ko haurrak Sasoetako eraikinera eraman zituzten. Ondorioz, Sasoetako gela bakoitzeko haur kopurua erruz igo da -ia 500 haur daude, eta gelak erdira murriztu dira-. Bestalde, HH4 eta HH5koak euskaltegi zaharrean moldatu dituzte; eraikin hori ez dago egokitua lehen hezkuntzako haurrentzat. Obrak espero baino gehiago luzatu dira, eta gaiak udalbatzarrean amaitu zuten. Aho batez babesa eman zieten udal ordezkariak gurasoei.

## Bizipen ederrak euskaraz biziz igaro zuten udara

Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko helburuz antolatu zuten *Mingaina Dantzan* udalekua. Lehenengo edizioa izan zen 2017koa, eta oso balorazio ona egin zuten antolatzaileek.

Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarte aritu zen antolakuntza lanetan, Eusko Jaurilaritzarekin, EUDELekin, UEMArekin eta Ebete enpresarekin batera.

Azken honetako arduradunak - Iñaki Eizmendi herritarrek - begirale eta koordinatzaileei formakuntza saioak eskaini zituzten. Eredu soziolinguistikoko ezberdinetatik datozen gazteen artean euskaraz sustatzeko teknika eta estrategiak landu zituzten horietan.

Eredu euskaldun eta ez hain euskaldunetako 13 eta 14 urteko 29 gaztetxo elkartu zituzten



*Mingaina Dantzan* udalekuan parte hartutako gazteak begiraleekin. TXINTXARRI

udaleku horietan. Eguneroko bizimoduan euskara entzutera ohituak daudenak, proportzioan, gehiago izan ziren, elkarriketa euskaldunak sustatze asmotan. Hala, Gasteiz, Barakaldo, Gernika, Azpeitia, Oiartzun eta Zumaiako lagunak elkartu zituzten Mundakan.

Udalekuan zehar egindako ikerketaren ondorioak urrian jakinarazi zituzten. Antolatzaileak "pozik" agertu ziren edukitako harrerarekin, eta gazteek eta gurasoek ere esperientzia "aberasgarria" izan zitzutela azaldu zuten udalekua amaitutakoan.



Rafa Diez, Okendo plazan egin zioten harreran, abuztuaren 17an. TXINTXARRI

# "Burujabetza beharrezkoa da aldaketa soziala eragiteko"

**RAFA DIEZ** LAB-EKO IDAZKARI NAGUSI OHIA

Sei urte eta erdiko espetxealdiak Diezen ideiak "indartu" ditu, eta pozik dago ezker abertzalean sustatu zuten aldaketaz. Orain, indarrak metatzeko unea ikusten du

## Txintxarri

Ibilbide luzeko militantea da Rafa Diez (Lasarte-Oria, 1956); azken hamarkadak lehen lerroan eman ditu, sindikalgintzan eta politikan. Ezker abertzalearen norabide aldaketaren sustatzailetako bat izan da, eta gogotik ordaindu du horregatik; *Bateragune auziko* kondena oso osorik beteta, abuztuaren 17an libre geratu zen, sei urte eta erdi barrote atzean eman ostean. Ezaguna eta maitatua da herrian; oraindik asko dira kalean ongietorria eman eta agurtzera joaten zaizkionak.

## Kartzelaldia

"Espetxealdiaren ostean, nire pentsamoldea indartu egin da. Konbentzituta nengoen aldaketa estrategikoaren beharraz. Uste dut planteamendu hori egokia eta ezinbestekoa zela, aurrera begira burujabetza eta proiektu independentista sustatzeko. Orain, konbentzituta nago garai hartan hartutako erabakiak egokiak izan zirela".

## Ongietorria Lasarte-Orian

"Sentsazio oso berezia izan zen. Gogoratzen dut plaza horretan asanbladak eta beste hainbat egitasmo eta borroka egin genituela, 1970eko hamarkadaren bukaeran. Okendo plaza beti izan da Lasarteko bihotza. Abuztuaren 17an ni hor izatea, eta ni protagonista izatea... Sekulakoa izan zen. Gainera, jende ugari zegoen, jende ezagun asko eta aspaldi ikusi gabeko lagunak ere. Hunkigarria izan zen".

## Herriarekiko lotura

"Egia da Donostian bizi naizela, baina nire bihotza Lasarten dago, eta gertutik jarraitu ditut bertako

berriak. Ni saiatu naiz hari horri eusten, eta egia da espetxealdiak indartu egin duela lotura hori. Kartzelan nengoela, Lasarteko herriak eta jende askok babesa eman dit: askok ezagutzen nindutelako; baina, beste hainbatek, ezagutu gabe. Espetxealdiak balio izan dit herriarekin dudan lotura hori indartzeko".

## Sindikalgintza

"Kapitalaren eta lanaren arteko harremanean, kapitalak sekulako boterea hartu du, bai kontrataziorako, bai lan baldintzak inposatzeko, eta baita langileak kaleratzeko ere. Hiru esparru horietan patronalak lortu ditu erraztasun guztiak. Aldiz, sindikatuoi kendu egin dizkigute tresnak, langileen eskubideak defendatzeko eta baldintza prekarioak dituztenen alde borrokatzeko".

## Burujabetza

"Askotan lotzen da burujabetza elementu sinbolikoekin, baina guk beti diogu burujabetza politikoa erabat lotuta dagoela aldaketa soziala eragiteko aukerekin. Burujabetzaren aldarria ez da abertzaleen eskaera etnizista bat. Aitzitik, burujabetzaren eskema erabat lotuta dago beste eredu sozial bat sortzeko aukerarekin. Hori ez da posible izango Espainian gauden bitartean".

## Adiskidetzea

"Adiskidetze prozesua gauzatzeko urrats batzuk egin dira, eta ezker abertzalea ausarta izaten ari da, prozesu horretan eman behar duena emateko; iraganari buruzko hausnarketak egiten, eta aurrera begirako konpromiso propioak hartzen".

**Garcia**

**AUTOBUSAK**

Nafarroa etorbidea 32-2.A  
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 609 479 478

info@garciabus.com - www.garciabus.com



*Urte berri zoriontsua  
izan dezazuela!*

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak
- Bestelako zerbitzuak

# "Olatuekin arraun egitea gogoko dut"

**INTZA FERNANDEZ** ARRAUNLARIA

Ziabogan izandako arazoak gorabehera, gustura dago Fernandez Kontxako Banderako emaitzarekin. Onartu du Donostiarraren lehen urtea "gogorra" izan dela

## Txintxarri

Arraunlari gaztea da Intza Fernandez (Lasarte-Oria, 1996), baina dagoeneko bi Kontxako Banderetan lehiatu da. Ez da lehiaketa garrantzitsuagorik arraunean, eta uneaz gozatu du Fernandezek. Gainera, ahazteko zaila izango du Kontxan jokatu bigarren txanda, olatu dantza baten erdian arraun egin baitzuen Donostiarra traineruan.

## Kontxako badia

"Gure estropadetara jende gutxi joan ohi da ikustera. Baina Kontxakoa izugarria da, gertutik nabaritzen duzu jendearen babesa. Denboraldia amaitzen dugu Kontxan, eta sari baten antzekoa da".

## Itsaso zakarra

"Niri gustatzen zait horrelako itsasoarekin arraun egitea. Beldurrik ez nuen, irrikaz negoen estropada jokatzeko".

## Arriskua

"Baina segurtasun neurri asko hartu zituzten. Traineru bakoitzaren atzetik sorosleak zihozten, txalupa batean. Trainerua



Intza Fernandez, Donostiarra traineruan. INTZA FERNANDEZ

iraultzea oso zaila da, baina arriskutsua da patroia-arentzako, zaila duelako orekari eustea".

## Ziaboga arazoak

"Ziaboga iritsi aurretik, barrutik ematera gindoa zen. Urduritasunagatik edo, patroiak ez zituen aginduak behar bezala eman".

## Donostiarraren denboraldia

"Nahiko gogorra izan da. Azkenean lortu dugu nahiko

maila ona erakustea, baina ez da erraza izan. Jendeak ez zuen esperientzia handirik, eta lanak izan ditugu entrenatzeko trainerua osatzeko. Halere, espero genuena baino maila hobea eman dugu".

## Hurrengo denboraldia

"Arraunean jarraituko dut, baina ez dakit non. Getaria-Zarautz utzi nuenean, banuen buruan maila altuagoko traineru batean hastea".

# "Pentsatu gabe irten ginen arraun egitera"

**ANDREA MARTIN** ARRAUNLARIA

Kontxako Bandera hobea egitea espero zuen Andrea Martinek, baina oso pozik dago urte guztiko lanaren ondorioz lortutako emaitzarekin

## Txintxarri

Orain hiru urte itsasoratu zen lehenengoz traineru batean Andrea Martin (Avila, Espainia, 1981) arraunlaria. Orduz geroztik, gogor entrenatuz eta eguneroko bizitzarekin uztartuz, goi mailan lehiatzera iritsi da. Ez zen saiorik errazena izan bigarren txanda Orioko arraunlariarentzat, ezta bere taldearentzat ere; balorazio positiboa eginaz amaitu zuen denboraldia.

## Kontxako badia

"Arraunlari batek parte har dezakeen arraun probarik handiena da Kontxako bandera. Azken finean, Kontxako Banderan arraun egiteko aukera izateak, urte guztiko lana ondo egin duzula esan nahi du".

## Itsaso zakarra

"Izan nitzakeen sentsazio guztiak izan ditut, baina, batez ere, itsasoarekiko errespetu handia sentitu dut. Itsaso zakarrera ateratzen nintzen lehen aldian zen".

## Talde lana

"Igandeko itsaso zakarraren aurrean, denok elkarrekin



Andrea Martin. TXINTXARRI

batera egin behar izan genien aurre olatuei; babestuta sentitzen zara. Hamalau goaz, baina bat izango bagina bezala. Talde sentimendua oso polita da".

## Probari nola aurre egin

"Itsaso barearekin har daitekeen azkartasuna ezin daiteke hartu itsaso zakarrarekin. Itsasoak ez du onartzen 30 paladatik gora hartzea. Itsaso ona dagoenean, berriz, 36 palada hartzen ditugu normalean.

Arraunaldia ere oso ondo amaitu behar da, teknika eta kontzentrazio handiagoa eskatzen du itsaso zakarrak".

## Arrauna erakargarri

"Taldea guztia batera, helburu berdinarekin bila elkarrekin joatea da gehien gustatzen zaidana. Azken finean, helburu berbera lortzeko elkarrekin egiten dugu lan, denok batera, erabat sinkronizatuta gaude, eta hori oso polita da".

## Eskuekin trebatu, ikasi eta jakin!

*Esku-jolasak, malabarak, zeinu-hizkuntza, masajea, txobxongiloak...*

**HH5, LH1 eta LH2koentzat** (2010, 2011 eta 2012an jaiotako haurrak)


ASTELEHENETAN: urtarrilaren 15etik otsailaren 5era

ASTEARTEETAN: urtarrilaren 16tik otsailaren 6ra

**Ordutegia eta lekua:** 17:30etik 19:00etara, anbulategi gaineko hitzaldi aretoan

**Matrikula:** 10€ Ttakuneko bazkideak, 13€ bazkide ez direnek

**Izen-ematea (urtarrilaren 8tik aurrera):** aisia@ttakun.eus, 943 37 14 48 edo Ttakunen



## ANORGA TXIBI S.L.

### KRISTALDEGIA

**2018 zorionsua izan dezazuela!**

· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943 37 17 33 - 610 45 93 45

## Euriz blai, Kutxa Kultur Jaialdia

Ezerkin izan du zapuztu musikazaletasuna; ez euri zaparradek ezta eguraldi ezin kaskarragoak ere. 4.000 pertsona inguru gerturatu ziren hipodromora, Kutxa Kultur festibalaren zazpigarren edizioa. Eguraldi txarrari, aurpegi ona: xirak jantzi, aterkiak zabaldu eta musikaz gozatu zuten jaialdiaren eremuan bildutakoek.

Havoc talde donostiarrak ireki zuen eszenatoki nagusiko (Keler guinea) kontzertu-sorta. Euskal Herriko beste hainbat talde eta bakarlari ere aritu ziren ostiralean: Madeleine, Kokein, Sara Mansilla, Iñigo Serrulla eta Zea Mays, besteak beste. Bereziki indartsua izan zen Aiora Renteria eta enparauek eskainitako emanaldia. Love of Lesbian eta The Jesus and Mary Chain taldeek jendetza erakarri zuten emanaldietara.

Larunbat arratsaldean, jende ilara luzea ikus zitekeen Lasarte-Oriako tren geltokitik behera. Vanessa Zamora izan zen eszenatoki nagusira (Keler agertokira) igo zen lehen

musikaria, eta bere ikuskizunaren ostean izan ziren The Divine Comedy, The Drums, The Hives, eta Hercules eta Love Affair. Gainerako agertokietan ere askotariko musika emanaldiak izan ziren, horien artean Skakeitan, Lookers, Beñat Igerabide, Oso Fan, Erol Alkan eta Luma, beste zenbaiten artean.

### Herrian ere musika giroa

Herriko kaleetan ere arnastu ahal izan zen Kutxa Kultur jaialdiaren giroa, larunbatean, pintxo eta edari artean.

Aterpea Merkatarien Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean antolatuta, musikapotea eta hainbat kontzertuz gozatu ahal izan zen. Roadhouse, Indian Feathers eta Psicoacoustic musika taldeek kontzertuak eskaini zituzten herriko txoko ezberdinetan.

Herritar ugari animatu ziren kalera irten eta doinu zein pintxo desberdinak entzun eta dastatzera. Giro ederra sumatu zen egitasmoaren harira.



Hipodromoan eta Lasarte-Orian hainbat estilotako musikaz gozatu ahal izan zen. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Ikasturte berria aurrean

Lasarte-Oriako ikastetxeetako gela eta korridoreetan hiru hilabeteko oporraldia amaitu zen. 2017-2018 ikasturtea hasi zen iraila hasieran Lasarte-Orian. Bi astetan ikasgelak betetzen joan ziren. Berrikuntza gutxi zekarren ikasturte honek. Sasoeta-Zumaburu ikastetxea Zumaburuko eraikineko lanak noiz hasi zain zegoen.

## Extremadura etxeko jaiak

Ekitaldiz beteriko jaiak ospatu zituen Lasarte-Oriako Extremadura etxeak. Irailaren 8an ospatzen den Guadalupeko Ama Birjinaren omenez, kultur ekitaldiak eta gastronomikoak izan ziren..

Bandera igoera, Extremadurako 'migak', haurrentzako pintura lehiaketa eta jokoak, 'Ecos de Monfragüe' taldeak lagundutako meza, herri bazkaria, karaokea, txokolate beroa, Jalguneko kideen dantza, 'Ibai Berriak' taldearekin dantzaldia, Andaluziako doinuak, Extremadurako eltzekaria, bola jokoak eta Donostiako Extremadura etxeko 'Virgen de Guadalupe' kora eta dantza taldearen emanaldiaz gozatu ahal izan zen. Bandera jaitzierarekin bukatu zituzten hiru egunetako jaiak.



TXINTXARRI



# INTZA ELKARTEA

2018 zoriontsua  
opa dizuegu!

Sagardotegi kalea, LASARTE-ORIA - Tel: 943 36 15 34



# "Emozioz beteriko saioa izango da; historikoa"

**IÑIGO GONZALEZ ETA TXEMA VALLES** 1 DORTSALA ERAMANGO DUTEN KAZETARIAK Ostadar SKTk urtero herriko eragile bat omentzen du. 2017an TXINTXARRI-k eta Diario Vascok eraman zuten 1 zenbakidun dortsala, Iñigo Gonzalezek eta Txema Vallesek

## Txintxarri

Lasarte-Oria Bai! Krosa irabazi zuten Hoki Guerrerok eta Osama Ifrajek, bigarren aldiz. Lehenengo Lasarte-Oria Bai! Roller lasterketan Ilazki Zalakainek eta Ane Plazaolak irabazi zuten, eta Anable Eleno eta Raul Gomez Margallo izan ziren helmugara azkarren iritsi ziren lasarteoriarrak.

Baina korrikalarietara batera, lasterketako irteeran hasi ohi dute euren *krosa* kazetarietara ere; beste erritmo batera, baina lasterketa ederra izan ohi da eurentzat ere urriko azken igandeko hitzordua. Lasterkarietara denborak, eta korrika saioak argazkietan harrapatu, eta Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian gertatutakoak herritarrei ahalik eta finen kontatzeko ahaleginetan, probaren bozgorailu izaten dira. Lan horren aitortza gisa omendu gisa aukeratu zituen Ostadar SKTk TXINTXARRI aldizkaria eta Txema Valles *Diario Vasco*-ko kazetaria.

## Notizia

**Iñigo Gonzalez:** "Niretzako sorpresa handia izan da, baita harro egoteko motibo bat ere. Lasarteoriatar bati zirrara gehien sortzen dion ekitaldietako bat krosa".



Txema Valles eta Iñigo Gonzalez 1 zenbakidun dortsala eskuetan dutela. TXINTXARRI

## Bat zenbakiaren eragina

**Txema Valles:** "Aurtengoan, 1 zenbakidun dortsala eman izanak berriz ere krosa korri egitera bultzatu nau, zazpi urte eta gero. Belauna apurtua daukat, eta ezin dut korrikarik egin, baina salbuespen bat egingo dut, entrenatu, lasterketa korritu eta atletismotik erretiratzeko".

## Prestaketak

**I.G.:** "Nik entrenamendu espezifikoak kroserako ez ditut egin. Futbolearen aritzen naiz, eta saio horiek aprobetxatzen ditut.

Astean hirutan entrenatzen dugu ordu eta erdiz, eta asteburuetan izaten ditugu norgehiagokak. Pasa den urtean ere horrela joan nintzen lasterketa korritzera, eta sentsazio onak izan nituen".

## Leiha

**T.V.:** "Lehiarik ez. Iñigo izango da nire erritmoa kontrolatu, eta nik lasterketa behar bezala amaitu ahal izateko esku bat botako didana. Hamar kilometroko lasterketa honetan, erraz atera diezazkizake 5-10 bat minutu Iñigok, baina

frenoarekin joango dela pentsatzen dut, elkarrekin joateko.

Emozioz beteriko lasterketa bat izango da; historikoa. Hau behin gertatuko da, ez da bueltatuko".

## Lasterketa elkarrekin

**T.V.:** "Bai. Politena lasterketa elkarrekin egitea izango da. Kasu honetan ez goaz elkarren artean lehiatzera. Gauza sinboliko bat da aurtengo gure parte hartzea, eta beraz, logikoena elkarrekin korritzea da".

## Denboraren garrantzia

**I.G.:** "Hasiara batean behintzat ez. 1 zenbakidun dortsala eramateko aukeraz gozatzea izango da garrantzitsuena".

## Krosetako parte hartzeak

**T.V.:** "2008ra arte egin diren guztiak korritu ditut. Urteren batean zuntz-hauste baten ondorioz ezin izan nuen korrikarik egin. 2009an belauna hautsi nuen, eta ordutik ezin dut korrikarik egin".

## Nolako esperientziak

**I.G.:** "Iragan urtekoa oso esperientzia polita izan zen niretzat, eta aurtengoa ere bereziki ona izatea espero dut".

## Berezia da herritarrentzat krosa

**T.V.:** "Zure txokoan korrika egitea baino gauza hobirik ez dago, beti ere ondo bazaude, noski. Norghegiagokak kirolaren zati politenak izan ohi dira; egindako esfortzua saritzen duten ekintzak izaten dira".

## Krosaren berri emate lana

**I.G.:** "Herrian hain adierazgarri izan ohi diren beste zenbait ekintzekin batera, Lasarte-Oria

Bai! Kros Herrikoia kubritzea oso esperientzia ona izan da niretzat.

Beti duzu ardura puntu hori ere. TXINTXARRI-n beti aritu gara kazetari bat baino gehiago, eta koordinazio lanari esker ondo moldatu izan gara beti.

Beste zenbait kasutan, ilunpean gera liteken lana azaleratzen da egun horretan. Kazetari batentzat oso atsegingarria da jendea pozik eta eskertua ikustea".

## Beste lasterketak

**T.V.:** "Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaz gain, 22 Behobia-Donostia eta hiru Donostiako maratoi korritu ditut. Horrekin batera, beste zenbait kros herrikoietan ere parte hartu izan dut, Herrerakoan, besteak beste".

## Ibilbide berria

**I.G.:** "Ibilbide aldaketek beti eragiten dute inpaktuaren bat lasterketa hauetan. Kros honetan gainera, orain arteko ibilbidea urte luzeetan zehar mantendu da, eta jende ugari egongo da erreferentziak hartuta edukiko zituena.

Hala ere, ibilbide aldaketa honek kros herrikoien garapenaren isla ere badela esango nuke. Izan ere, kirol diziplina gehiago hartzen ditu Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia, eta horren erakusleho ere bada".

## Zailtasunak

**T.V.:** "Zailagoa ez, azkarragoa izango da lasterketa. Jaitsiera eremu dezente izango dira, eta aldapa gora gutxiago. Belaunentzako eta hankentzako okerragoak izan ohi dira, lesio gehiago sortzen dituzte, baina arinago joango gara".



Lasarteoriatar guztioi  
2018 zoriontsua  
opa dizuegu



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO



# Emozioa, ilusioa, lana... eta festa!

Orain bi urte auzoko beharrei erantzuteko sortu zuten Sasoeta Sasoian auzo elkarte, eta orduz geroztik auzoa berpizteko ahaleginetan ekintza ugari antolatu dituzte. 2017an bigarren urtez antolatu zituzten auzoko festak, "emozioz" beterik

## Txintxarri

"Emozioa" hitza hautatu zuten Sasoeta Sasoian elkarteko kideek, lehenengo festa eguna deskribatzeko: "Emozioa, auzotarrentzako festa ederrak antolatu ditugulako; emozioa, adin-tarte guztietako lasarteoriatarak izango direlako protagonista", adierazi zuten. Osagai horiek izan zituen auzoko jaietako lehen egunak: emozioa, ilusioa, hilabetetako lana...eta, nola ez, festa.

Txupina jaurtitzearekin batera egin zuen eztanda Sasoetako jai-giroak. Herrian oso maitatua den pertsona batek eman zuen pregoia: Jesusen Bihotza apustolutzako kide den Concha Arraztiok.

Gaua ekitaldiz josia izan zen: txikienak disko-festaz gozatu zuten. Ondoren, 21:15ean, Songa Dance' eta fotojaiaren txanda izan zen. 21:30ean zezensuzkoa ibili zen Andatza plazan. Eta festa gauarekin amaitzeko konzertuak izan ziren.

## Bigarren festa eguna

Tanborrada izan zen bigarren feste eguneko ekintza nagusia.

Horrez gain, Rafafa magoaren emanaldia, parkour ikuskizuna, sardina-jate herrikoia eta zunba ere izan ziren auzoan.

Gauean 'Songa Dance' dantzatu eta zezensuzkoa atera zen. Jaizkibelen Stylo aritu zen.



Concha Arraztio festei hasiera emateko pregoia ematen. TXINTXARRI



Tanborradak auzoko bazter guztiak zeharkatu zituen. TXINTXARRI



Michelingo frontoian egin zuten bazkaria. TXINTXARRI

## Gozamenerako omenaldia zaharrei

Urrian jaso zuten merezitako omenaldia Lasarte-Oriako zaharrek. Jaiari hasiera emateko, Biyak Bat egoitzan bandera altxatu zuten kideek. Ttiriki-Ttarraka taldekoek girotu zuten ekitaldia, trikiti eta panderoak eskuetan.

Urtero legez, meza nagusia egin zuten, eta lepo bete zen San Pedro eliza. Ia ordubetez egon ziren herritarrak bertan, kalejiran Manuel Lekuona kultur etxerantz abiatu aurretik. Berrito ere, Ttiriki-Ttarrakako gazteekin egin zuten bidea.


Hainbat musika eta dantza emanaldiz gozatu zuten adinekoek bertan. Biyak Bat abesbatzako kideak izan ziren taula gainera irteten lehenengoak. Euren erreperatorioko pieza onenak eskaini zituzten: Benito Lertxundiren *Erribera*.

Ondoren, Amaia Gonzalez Caballero dantzariak erakustaldia eskaini zuen, adin guztietako ikasleekin batera. Txalo zaparrada handia jaso zuten dantzariak. Bukatzeko, Michelingo pilotalekuan elkartu ziren berrehun pertsona baino gehiago, bazkari legea egiteko.

## Bazkaria

Sabela bete eta gero, omenaldiak: ohitura den bezala, bazkariko bi pertsona helduenek erloju bana jaso zuten: Maria Gonzalez eta Eulogio Lameiras dute izena. 91 urte dituzte biek. Horrez gain, aurten 80 urte bete dituzten gizon eta emakumeek lore-sorta bana jaso dute. Digestioa egiteko, Ruby Berriak taldearekin dantza eginez astindu zuen gorputza batek baino gehiagok.

Jesus Zaballos alkateak ezin izan zuen bazkarira joan, eta haren orde, Lourdes Acevedo alderdikideak egin zituen udaleko ordezkariak lanak. Musika, barre eta algara tartean, giro ederrean igaro zuten eguna.



**LASARTEARRA  
KIROL ETA KULTUR  
ELKARTEA**

*2018 zorionsua  
opa dizuegu!*

Erribera kalea 10, atzealdea  
943 36 29 97 - Lasarte-Oria



Udal ordezkariak, PPKoa ezik, Memoriaren Egunean biktimak omentzen. TXINTXARRI

# "Ispiluaren aurrean jartzen gaitu bizikidetzatza txostenak"

**BERTHA GAZTELUMENDI ETA SABINO HORMAZABAL ARGITUZ TALDEKO KIDEAK**  
Memoriaren Eguna ospatu zuten Lasarte-Oriaren azaroaren 10ean. Herriko iragan hurbilan sakondu dute Argituz elkarteko kideek, bizikidetzatza txostena lantzeko

## Txintxarri

Urteetako gatazka eta bortizkeriaren ondoren, atzera begiratzeko garaia iritsi da. Oraindik badaude auzi asko konpontzeko, baina beste batzuen gainean bizikidetzatza arrunt bat hasteko oinarria badago. Horrela uste du Argituz giza eskubideen aldeko elkarteak. Horretarako, baina, ezinbestekoa da gertatu dena kontatzea. Horixe egiten saiatu dira, hain zuzen, Bertha Gaztelumendi eta Sabino Hormazabal Argituzeko kideak.

*Memoria partekatu baterantz* txostenean jaso dituzte Lasarte-Oriaren 1956. eta 2016. urteen artean jazotako giza eskubideen urraketak. Udaleko talde guztiak PPK salbu ospatu zuten azaroaren 10ean Memoriaren Eguna, lore eskaintza eginez.

## Zauriak sendatzeke

"Oraindik ere zauriak ez daude itxita, oroimena gordetzeko tresnak eta denbora behar dira zauri horiek osatzeko, baita jarrerak aldatzeko ere. Hala ere,

"besteak" onartzeko bidean lehen urratsak emanak daude, ezberdintasunak errespetuz begiratzuz, besteak entzunez..."

## Zubigintza

"Oinak lurrean ondo jarrita, eta oraindik ere mantentzen diren oztopoak alboratu gabe, aldaketa baikorretan arreta jartzea gustatzen zaigu. Adibidez, txostenean ageri da Lasarte-Oriako ETAREN azken hildakoaren, Froilan Elespe PSE-EEeko zinegotziaren,

inguruan egiten diren balorazioak erabateko batasuna dutela ideologia politiko ezberdineko pertsona guztien artean".

## Memoriaren balioa

"Txostenaren edukiak gure ispiluaren aurrean jartzen gaitu. Hor azalaratzen da, neurri handi batean, izan garena eta garena. Gertatu zaigunaren memoria ezberdinak partekatzea atzera begiratzear gain, gure orainari eta etorkizunari begiratzen ere laguntzen digu. Gertatutakoa ondo ezagutzeak berriro ez gertatzea suposa dezake, datozen belaunaldiak etorkizunean indarkeria baztertu dezaten gatazkak konpontzeko".

## Behetik gora

"Gure esperientziaren arabera, errazagoa da eremu lokaletik hastea. Behetik gora eginez, iraganean gertatutakoaz ahalik eta gehien berreskuratu ahal izango da, gertaerak sailkatuz, ezer nahastu gabe. Udalerrietan gertatutakoa ezagutzen da, herrian bertan aktore horiek bizi direlako, positiboak eta negatiboak. Gertakarien lekukoak izan diren pertsonak daude. Ezaugarri horiek indarkeria gainditzeko aukera zabalagoak ematen ditu, eta horrez gain, leku fisiko berbera errespetuz partekatzeak aukerak ere hazten dira".

## Biolentzia mota asko

"Giza eskubideen urraketa guzti-guztien irakurketa bateratua egingo da noizbait; egun hori iritsiko da, dudarik ez dugu. Ikerketa berean sartu ez izanak ez du esan nahi zenbait urraketa besteak baino garrantzitsuagoak direnik. Urraketa guztiek bere lanketa eta aitortza izan behar dute udal mailan. Baina gure txosten honi dagokionez, motibazio politikoa duen indarkeria jaso dugu, politikoa terminoa modu estu batean ulertuta. Zentzu zabalago batean irakurriz gero, orduan bere gain hartu beharko luke txostenak giza eskubideen urraketa guztiak: sexu, arraza, genero, erlijio eta beste arrazoi direla medio egindako biolentziak. Gai horiek guztiak politikoak direlako".

## 1956-2016 urteak

"Urte horietan gertakari esanguratsuak eman ziren: migrazio mugimenduak,

Munduko Euskal Batzarra Parisen, azken makiak... Francoren erregimenaren kontra saiatzen den belaunaldi berri bat sortzen da, baina gerra osteko erresistentziaren praktikaren ereduetatik kanpo aritzen da. Langileen borrokak berritzen dira 1956an, eta ikasleen lehen protestak ere ematen dira. Horren aurrean, erregimenaren erantzuna da lehen salbuespen estatua ezartzea. Orotara hamaika izango dira euskal lurraldeetako batean jarritako salbuespen egoerak.

Bestetik, estatu eta erkidegoko biktimeen legeak 1960ra jotzen dute, eta Lasarteko ume bat, Begoña Urroz, DRILEk eginiko atentatuan hil zen urte horretan... Beraz, logikoa da ikerketa herri honetako azken 60 urteetan zentratzea".

## Biktima motak

"Espainiako Estatuan kaltegile edo erasotzaileen arabera idatzi dira legeak. Erasotzailea nor den arabera arautu da. Alderantziz behar du izan, biktimaren ikuspuntutik sortu behar da legea. Hasierako legeen atzetik beste berri batzuk etorri dira, baina aitortza eta erreparazio eskubideak ez dira biktima guztientzat berdin izan. Batez ere polizien biktimek, torturaren kasuak barne, sumatu dute babes falta hori. Izan ere, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen EAEn 1978 eta 1999 urteen artean izandako motibazio politikoko giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak aitortzea, eta haiek erreparatzea. Baina Estatuko abokatutzak errekurtsua jarri du. Giza eskubideen Nazioarteko erakunde eta arauak argi eta garbi diote ezin dela bazterkeriarik egon biktimen artean. Bada printzipio hau betetzeko garaia".

## Biktima motak

"Kultur etxean txostenaren aurkezpenean ekarpenak egiteko modua adierazi genuen. Udalaren webgunearen bitartez egin daitezke, edo horretarako jarri diren baliabideen bidez. Udalak eta Bizikidetzatza Mahaiak jaso eta bideratuko dituzte. Animatu nahi ditugu herritarrak ekarpenak egitera, memorian aurrera egiteko".

## Barrote artean, 20 eta 30 urtez

Euskal Herrian gatazka bideratzeko hamaika aurrepauso egin dira, baina Madrilek eta Parisek ez dute oraindik espetze politika aldatu. Eta preso senideek azalean sufrizten dituzte eraginak. Lasarte-Oriako Javi Gallaga eta Santi Arrozpide presoek 20 eta 30 urte bete zituzten barrote artean azaroan, hurrenez hurren. Haien gertukoek ez dute itxaropenik galdu berriro ere gertu ikusteko, bisitak egiteko bidaia amaigabeen artean.

Toñi Ruiz eta Mikel Gallagak, Javi Gallagaren amak eta anaiak 1.600 kilometroko joan-etorria egin behar dute Kordobara (Andaluzia, Espainia) hura ikusi nahi duten bakoitzean. Honela azaldu zuen Mikelek senitarteko bat kartzelan edukitzearen sentsazioa: "Gertuko bat kartzelan duzunean bizitza guztia baldintzatzen dizu. Zure izatearen eta denboraren zati handi bat harengan inbertitzen duzu. Auskalo egunean zenbat aldiz akordatzen naizen Jabi anaiarekin. Nire arrebarekin baino askoz gehiago, nahiz eta hura pozik bizi den bere familiarekin".

ETAk 2011n jardun armatua amaitu arren, aldaketarik ez dute nabaritu espetze politikan. Ruiz: "Gauzak okerrera doaz, urteek ez baitute zama arintzen. Eta zer egin dezakegu? Zergatik egoera hau? Gerturatzeaz hitz egiten dute. Nola ba? Kordoban egon den hamahiru urteetan ez dute isolamendu ziegatik atera ere egin".



Azarako azken ostiralean egindako manifestazioa. ARGAZKIJABEAXXX

Hogei urteko joan-etorriak familiari zuzenean eragin diote. "Nik kontuak atera ditut. Pisu bat ez, bi erosi ahal izango nituzke gastatutako diru horrekin", esan zuen Ruizek. "Halere, garrantzitsuena da Jabiri ahalik eta bisita hobereana egitea, ikus dezan berarekin gaudela. Gainerakoak ez dio axola. Dirua ez da kezka bat. Berak burua entretenitua eduki eta animatua egon behar du. Bidaiak, dirua... Horrek ez dio axola".

### Mendeku politika

Egoera bertsuan dago Arrozpide. Bizitza erdia baino gehiago eman du espeteratua, dikta-dura garaian ere atxiki zutelako. 27 urte Frantzia eta Espainiako kartzeletan bete ondoren, 2014. urte amaieran askatu zuten. 45 egunera atxilotu zuten ostera, kargu berriak aurkeztuta. Egun Topaseko espetxean dago (Salamanca, Espainia). "Bazekien atzetik etorriko

zitzazkiela, ez zuen ekipajea desegin", esan zion TXINTXARRI-ri Maite Toyos haren emazteak.

Motel, baina gauzak aldatzen ari direlakoan dago Toyos. "Borroka luzea da, batez ere barruan daudeneztat eta senideentzat. Baina itxaropena ez dugu galdu denak etxean ikusteko. Erabakia politikoa da, ez da justizia kontua. Baina beti gaude prest oztopo gehiago aurkitzeko". Frantziak aurrepausoak egin ditzakeela uste du. "Frantzia hasita, Espainiak beste ikuspegi bat har dezake, baina ikusi dugu estatuak nola erantzun duen Katalunian. Beldurra ematen du horrek, horma bat dugu aurrean, eta ez du konponbiderik nahi".

Espetze politika mendeku tresnatzat du Toyosek. "Familia suntsitzea du helburu". Halere, erantzuna bestelakoa izan beharko lukeela dio. "Umoro onez erantzun behar dugu, besterik ez zaigulako gelditzen".



TXINTXARRI

## Hiru estilo jaialdi baterako

Bandoneoia, akordeoia eta trikitixa izan ziren XIX. Akordeoi Jaialdiko protagonistak. Enrique Telleria, Kepa Junquera eta Sorginak, eta Alain Musichini igo ziren Manuel Lekuonako oholtza gainera, Zero Settek urtero antolatzen duen ekitaldian. Junkerak Luken gaztetxo oholtzara igo, panderoa eman eta elkarrekin inprobisatu zuten. Manuel Lekuona auditoriuma txiki geratu zen.



TXINTXARRI

## Urtemuga, oholtza gainean

Oholtza gainetik itzali zituen kandelak SuBerri akordeoi taldeak, hauspoei eraginez. Bost urte bete ditu taldeak, eta emanaldi berezia eskaini zuen urtemuga ospatzeko. Baina ez zen urtebetze festan bakarrik egon. Herriko beste kultur taldeek eta eragileek ere parte hartu zuten ekitaldian. Ezusteko modura, SuBerriko kide batzuek bertso polita abestu zioten Elias Goikouria zuzendariari.

# DANI karrozeria

## Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa



2018 zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuitu ibilbidea 12  
20160 · LASARTE-ORIA  
Tel. 943 37 14 40  
Mugikorra: 608 39 18 85  
carroceriasdani@carroceriasdani.com  
www.carroceriasdani.com

# Euskal Jai giroa, euripean

## Txintxarri

Goizean goiz hasita ekin zioten festari Lasarte-Orian. 2017an azaroaren 25ean ospatu zuten Euskal Jaia. Euria goitik behera bota zuen, baina ez zen nahikoa izan festa zapuzteko. Goizeko hamarretako dianarekin hasi zuten festa. Xumela abesbatzako kideek kantuan egin zioten ongietorria ospakizun berezi horri.

Eguraldi petrala dela-eta, Loidibarren frontoian egin zuten ospakizuna. Paella beroak ase zituen gosea. Dantzak eta musikak berotu zuten giroa. Sagardoak eta ardoak ere lagundu zuten horretan.

## Baskalontzean dantza

Bazkalostean aritu ziren oholta gainean Xumela, Zarauzko Montetxio eta

Hondarribiko Olagarro abesbatzak, elkarrekin. Gero Intza Alkain gazteak barre-algaraka jarri zituen ikus-entzule guztiak bere okurrentzia umoretsuekin.

Eguna biribiltzeko, dantzan aritu ziren herritar ugari. Ttiriki Ttarrakako kideek jarri zituzten doinuak, Ixak Arruti gitarra-jotzailearen eta Jokin Irastorza batera jotzailearen laguntzarekin. Nabari zen gustura zebiltzala bertaratutakoak, etengabe baitzeuden dantzariak frontoian.

Bukatzeko, Oaintxe in deul txarangarekin batera, herriko tabernetatik ibili ziren lasarteoriatarak, poteoan. Inor ez zen eguraldi txarraz akordatzten ordurako. Euriak ezin izan zuen jaia zapuztu.



Dantzan pasan zuten arratsaldea Loidibarren frontoian. TXINTXARRI

## "Murrizketak egiten badituzte autobus zerbitzuan lehertu egingo da"

ANDONI LOINAZ TSST-KO LANGILE BATZORDEKO KIDEA

TSSTko langileak kezkatu daude. Kexu dira oraingo lan baldintzez, egokiak ez direlakoan. Eta horiek konpondu beharrean, uste dute Gipuzkoako Aldundiaren autobus zerbitzuaren aurreproiektuak are gehiago estutuko dituela. Andoni Loinaz TSSTko langile batzordeko kideak proiektuak ekarriko dituen murrizketak azaldu zizkion TXINTXARRI-ri: Lasarte-Oriatik ospitaleetarako linea %46 murriztuko dute; Lasarte-Oriatik Donostiara %25; Amarara %25; Andoainera %25; Hernanira %46; eta Tolosara %50. "Urtean 800.000 kilometro gutxiago dira".

**Urtarrilerako nahi zuten indarrean aurreproiektua. Gerora esan du Marisol Garmendia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuak maiatza arte ezingo dela indarrean jarri.** Helegiteak jartzeko epea hamabost egun atzeratu zuten.



TXINTXARRI

Epeak errespetatu izan balituzte ere, urtarrilerako zaila lukete aurrera eramatea, saltsa handia sortu da eta. Nire irudipena da luzerako joko duela.

**Diputazioak dio 30 urtetan ez dela berritu kontzesioa, eta beharra badagoela. Horrela ikusten duzue zuek?** Aspaldi iraungita dago kontzesioa. Duela lau urte atera zuten, baina helegitea jarri eta atzera bota zuten. Orain ari dira berriro. Kontzesioa berritu edo ez, guk horri ez diogu arreta jartzen. Guretzat, langile eta erabiltzaile moduan,

garrantzitsua da lan baldintzak, denborak, maiztasunak eta zerbitzuak hobetzea. Kontzesioak hori ekartzen badu, primeran. Baina orain arte ikusi dugunak ez du hori erakusten, kontrakoa baizik: atzeraka goaz, karramarroak bezala.

**Garmendiak dio linea batzuk gairdimensionatuak daudela.**

Alderantziz. Lehertuta daude. Linea gehitxo ez, motz daude. Egia da aldea dagoela ordutegiaren arabera. Baina gaueko hamarretan ere ibiltzen da jendea. Zer pentsatzen du Marisolek, beti goraino beteta joan behar duela autobusak? Zerbitzu publikoa da, jendea ari gara garraiatzen, ez fardoak.

**Aukerarik ikusten al duzue aurreproiektua gerarazteko?** Udalak, sindikatuak, langileak eta erabiltzaileak mobilizatu dira. Itxaropena beti dugu. Hau horrela ezin da atera, eta ateratzen bada, berez erori behar du. Aurreproiektua bere horretan indarrean jarriz gero, lehertu egin behar da dena. Orain estu bagabiltza, pentsa murrizketa gehiago egiten badituzte.



TXINTXARRI

## Herriko kaleak, zombiez beterik

*Survival Zombie* rol jokoak hartu zituen Lasarte-Oriako kaleak azaroaren 18ko gauean. 1.200 pertsonak baino gehiago parte hartu zuten ekitaldian, gehienak herritik kanko etorritakoak. Hurrengo eguneko seiak arte iraun zuen jokoak. Iluntzean hasi ziren zonbiak izango zirenak makillatzen.

## Loquillo Riders Lasarte-Orian, motor hotsen artean

Loquillo Riders motorzaleen elkarteak lehen urtemuga ospatu zuen azaroaren 3an, egun osoko ekitaldiak antolatuta. Motorren orroek esnatu zituzten bizilagunak goizean. Ibilaldia egin ondoren bazkaltzera geratu ziren motorzaleak. Haurrentzako ere prestatu zituzten puzgarriak.



Motorzaleak, herritik barrena. TXINTXARRI

# LUIS CAR

## autobusak

2018 zoriontsua  
opa dizuegu!



- Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre Plaza 1, Lasarte-Oria  
Tel/Faxa: 943 36 63 16  
Mugikorra: 629 461 897  
luiscarbus62@hotmail.com



## 2018an... elikatu euskara!

Ttakuneko bazkide izanda, herriko euskararen sustapenean lagunduko duzu

### Zer babestuko duzu?

- Haur eta gazteen euskarazko aisialdia
  - Amaraun kluba
  - Gazte kluba
  - Kuadrillategi
  - Faktoria
  - Udako txokoak
  - Udako kanpaldiak
- Helduen euskarazko aisialdia
  - Plaza Dantza eta Muxikoak
  - Solaskide programa
  - Titare joskintza taldea
  - Helduentzako tailerrak
- Kultur ekintzak
  - Euskal Inauteriak
  - Udaberriko bertso saioa
  - Azkorteko erromeria
  - Sorgin Dantza
  - Santa Ana parodia
  - Euskal Jaia
  - Euskararen Maratoia
  - San Tomas azoka
  - Olentzerori ongi etorria
- Txintxarri aldizkaria
- Irakutrezin aldizkaria
- Ikastaroak

### Zein abantaila izango dituzu?

- Lehentasuna zenbait izen-emateetan
- Deskontuak
- Zozketak
- "Ttakunberri" buletin digitala
- Ttakuneneako gune orokorra erabiltzeko aukera\*
- Batzar orokorreko erabakietan parte hartu eta proposamenak luzatzeko aukera

\*Ttakunenea gune gastronomikoa ere erabiltzeko, bazkide kuota 174€-koa da

Urteko  
bazkide-tza  
54€





Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta laguntzaileek herriko kaleak zeharkatu zituzten Okendora iritsi aurretik. TXINTXARRI

## Ilusioa eta poza banatu zituzten 24 arratsaldean

Gau luze eta nekeza izan zuten aurretik Olentzerok eta Mari Domingik. Dena dela, ongi-etorri ezin beroagoa jaso zuten 24an, Lasarte-Orian. Xixuko ahatea eta Porrotx pailazo bihurriarekin batera, herritarrengana jaitsi ziren haurren eskutitzak jaso eta ilusioa banatzera

### Txintxarri

Menditik jaitsi, eta Lasarte-Orian izan ziren pasa den igandean Mari Domingi eta Olentzero, zakua bete opari, gure etxeetan banatzeko. Lan nekeza izan zuten aurretik, baina indarberrituta ekin zioten, herritarren aitortza bero eta goxoa jaso ostean. Lasarteoriatar ugari gerturatu ziren ongi etorri ematera.

Loidibarren pilotalekutik irten eta herriko kaleetan barrena desfilatuz ekin zion arratsaldeari bikoteak, Xixuko ahatea eta Porrotx pailazo bihurria lagun zituztela.

Horiek izan ziren protagonista nagusiak, baina ez bakarrak: galtzagorriak eta arkumetxoak ere atera ziren. DBHn ikasten ari diren hainbat gaztek ere hartu zuten parte. Gazteenek argi-zuziriak eraman zituzten. DBH2 eta 3koek, aldiz, euskal mitologiako hainbat pertsonaia irudikatu zituzten: Basajaun, Mari, Tartalo, Sorginak, Basandere, lamiak... Ttakun Kultur Elkarteak antolatu zuen desfilea.

Okendo plaza lepo zegoen, ikazkinari eta bere lagunei harrera beroa egiteko.

Urtebetez egon dira zain lasarteoriatarak, gaztetxoek batez ere, eta gogotsu zeuden protagonista maitagarriak gertutik ikusteko.

Olentzero prestatu bitartean, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx aritu ziren taula gainean. Gero, Olentzero batu zen festara, eta baita zenbait lagun ere. Jalguneko kideak esaterako oholtza gainean izan ziren abestiak kantatu eta dantzatzen. Zenbait abesti ezagunekin astindu zituzten gorputzak: *Zerutik eskura*, *Txiki txikia*, *Pausoka pausoka* eta *Agur bat lagun maite*.

Oholtzatik jaitsi, eta aulkietan eseri ziren, udaletxe berriko atarian. Haurren eskutitz mordoak jaso zituzten bertan Mari Domingik eta Olentzerok. Denak irakurtzen aritu ostean, opariak ezin izan zikieten eman arratsaldean, baina ilusioa eta poza ekarri zituzten. Haur eta gazteen ilusioa ikustea besterik ez zegoen.



Galtzagorriek ere ez zuten hutsik egin desfilean. Porrotx izan zuten bidelagun. TXINTXARRI



Euskal mitologiako pertsonaia ugari ere ikusi ahal izan zen desfilean. TXINTXARRI



Antxumea, oilarra, ardia izan ziren Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaile, besteak beste. TXINTXARRI



Kuadrillategio gazteek argi zuziriak eta Ikurrina eskuetan zituztela zabaldu zuten desfilea. TXINTXARRI



Familia argazkia aterata amaitu zen Jalguneko aurtengo jaialdia. TXINTXARRI

## Gai direlako, jai!

Jalguneko kideak gai dira sekulako jaialdia antolatzen. Gai dira Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa leporaino betetzeko. Gai dira ikusentzuleak hunkitzeko, eta barre-algaraka jartzeko. Gai dira hilabeteotan tentuz eta maitasunez entseututako guztia oholza gainera eramateko. Gai dira eguneroko errutinako enkargu eta zereginak egiteko. Gai dira bizitzaren momentu bikienetarik ere zuku guztia ateratzeko. Bai, gai dira. Edozertarako.

Lasarte-Orian gai gara leloa erabili zuten aurtengo jaialdirako. Herria giroten eman zioten hasiera jaialdiari, Dinbi Banda batukada taldekoen laguntzaz. Beko kaletik abiatu ziren, eta erdigunea zeharkatu eta gero, Manuel Lekuona kultur etxera iritsi. Prest zuten oholza, eta ikusentzuleak arretaz begira, Jalgunekoek prestatutako sorpresak deskubritzeko irrikaz.

Oholza gainera igota, musika topera jarrita, eta gorputzak astinduz hasi zen emanaldia. Tartean, 2017ko momentu onenak gogoratu zituzten, bideo baten bitartez. Zinemako filmik arrakastatsuenak ekarri zituzten gero: E.T. estralurtarra, *El Guardaespaldas* (Bizkartzaina) edota *Titanic* filmeko protagonistak, besteak beste.

Horrekin guztiarekin batera, herriko elkarten kolaborazioa ere ez zen falta izan; Semblante eta Xumela ere lagun izan zituzten oholtzan.



Saritutako kirolariak udal ordezkariak lagunduta jaso zuten aitortza. TXINTXARRI

## Kantxa, pista eta zelaietan merezita irabazitako sariak

Axier Arteaga pilotari profesionala, Eneritz Busto atleta eta Mikel Etxarri entrenatzailea saritu ditu Udalak

### Txintxarri

Euskal Herri zein Estatu osoko kantxa, pista eta zelaietan aritzen dira Axier Arteaga, Eneritz Busto eta Mikel Etxarri lasarte-oriatarak. Kirol arloan, herriaren enbaxadore apartak dira aipatutako hiru pertsona hauek, eta merezitako aitortza jaso zuten udaletxe zaharreko udalbatzar aretoan. Gunea txiki

geratu zen, herritar askok gertutik jarraitu nahi izan zutelako ekitaldia.

Jesus Zaballos alkateak gidatu zuen aitortza ekitaldia, eta hiru kirolari sarituak herritarrek hautatu zituztela azaldu zuen. "Zalantza izpirik gabe, eredu dira guretzat hiru herritar hauek, belaunaldi gazteentzat batez ere".

## Okendo plaza lepo bete zuten herritarrek San Tomas egunean

Ttakun Kultur Elkarteak azoka antolatu zuen Okendo plazan, eta jende ugari gerturatu zen jai giroaz gozatzera

### Txintxarri

Abenduaren 21ean San Tomas azokak hartu zuen Okendo plaza, eta jendez bete zen. Ez zuen ezerk huts egin. Trikiti eta pandero doinuak, euskal abestiak eta erromeriak girotu zuten azoka.

Sagardoaren eta txistorra taloen bueltan bildu zen jendea.

Beste urte batez Ttakun Kultur Elkarteak antolatu zuen San Tomas azoka Lasarte-Orian. Neguaren hoztasunak ez zuen jendea kikildu, eta plaza bete

zuten. Gaztain erre beroek lagundu zuten hotzari aurre egiten. Baserritar jantziek ere babestu zuten jendea aire freskotik.

Haurren artean arreta gehien erakarri zuen zerriaren postuak.

Institutuko ikasleek eta Alboka Abesabtzako kideek ez zuten aukera galdu, eta txistorra oigartekoak eta sagardoa saldu zuten, sos batzuk irabazteko. Halere, Ttakunen taloen postua izan zen preziatuena; ilara luzeak sortu ziren horiek eskuratzen.



Talogileak etenik gabe aritu ziren bezeroentzat taloak egiten. TXINTXARRI

## XIRIMIRI ELKARTEA



Gabon zoriontsuak  
eta urte berri on opa  
dizuegu!!

Hator, hator... presoak etxera!



**ZORIONAK ETA  
URTE BERRI ON!**

2018